

# HIRUGARREN HITZA

## Lehen egintza

Etxe aintzindea. Mahi baten gainean liburu batzu eta josteko zarea. Kadera edo fotila. zonbait. Goiza da, Oihala altxatzean ez da nehor ageri. Ttanta Matilda eta Angelé ikusiko ditugu ixtantean. Bat alarguntsa, bertzea mutxurdina, 60 urte ingurukoak. Matilda emazte bipila, manatzailea. Angeli aldiz extia eta umila. Euxebio aldiz etxeko mutila.

Matilda eta Euxebio

**MATILDA:** Euxebio, Euxebio...

**EUXEBIO:** Heldu naiz, heldu etxekanderea... *(mertxika adar loretsua ditu eskutan. Buru has da, bainan kopeta mokanes handi batez lotua)*

**MATILDA:** Bainan oraino hemen? Trainaren tenorea da ixtantean...

**EUXEBIO:** Ez kexa, aizina dugu!

**MATILDA:** Aizina? Ganbera-ko orenean hameka orenak dira!

**EUXEBIO:** Bai eta enean berriz hamarrak et erdiak... Erran dezagun beraz hamekak laurden guti direla!

**MATILDA:** Zuk diozu aizina dugula, bainan trainaren tenora da!

**EUXEBIO:** Goazen, goxoan! Hameka eta laurdenetako treina ez da behin ere eguerdi laurden guti arte arribatu!

**MATILDA:** Bai bainan egun ahantzian balitz?

**EUXEBIO:** Ez izan beldurrik! Hori bezain xuxen erabil zen den trainik ez da. Duelako 30 urte hoitan berant bera du!

**MATILDA:** Dena den, erna zite, Karrosa atalatu duzu?

**EUXEBIO:** Bai anderea, bortan da.

**MATILDA:** Eta lili zuri horiek? Nik abarperdeak galdegin dauzkitzut!

**EUXEBIO:** Bai anderea, zuk adarrak, eta perdeak. Andere Angelik aldiz lili xuriak. Eta nik aldiz ekarri mertxika adar xuriak. Hola bien konplimendua egiten dut.

**MATILDA:** Aldi batentzat paso, bainan, ez ahantz etxe huntako manatzale bakarria ni naizela. *(Liliak ezartzen ditu leiho ondoan den untzian).*

**EUXEBIO:** Ahal bezenbat biekin bakean bizi naiz.

**MATILDA:** Hori joko tzarra Euxebio. Eskuinetik dabilenari ezkerrekoak harria botatzen dik. Ezkerretik dabilanari eshuinekoak. Erdian gelditzen denari aldiz bi alderdikoek.

**EUXEBIO:** Hori da mendi huntako gaitza, gure nagusi zenari 7 aldiz entzuna dut.

**MATILDA:** Eta harriak aipatzen ditugunaz geroz, nolaz duzu burua lotua?

**EUXEBIO:** *(mokanesa kenduz)* Anjeli anderearen falta da...

**MATILDA:** Nere ahizpak harrikatu zaitu?

**EUXEBIO:** Ez ez, bainan leihotik lili untzia erori zaiot!

**MATILDA:** Gaixua! Beti holaho ttuttula bat izan da, eta orai neska gazte horren arribatzeak harritzen du...

*(Barnetik ageri da Anjeli kantuz, Strauss-en aire batean).*

**EUXEBIO:** Ez duzu ezagutzen aire hori?

**MATILDA:** Beti bere Strauss-ekin!

**EUXEBIO:** Bai bai, lili untzia erori zaiolarik, aire hortan berean ari zen.

**MATILDA:** Hun da orai Anjeli?

**EUXEBIO:** Baxera egiten ari da!

**MATILDA:** Jainkoak lagun nezala! *(Oihuka)* Anjeli! *(Barnetik gaitzeko arrabotsa bat, baxeraki batzu erortzen).* *(Matildak begiak estaltzen ditu bere eskuez).*

**EUXEBIO:** Malerusa! Strauss edo delako horrek ez du sekulan bertzerik egin! *(Anjeli leihotik)*

*kanpora behatzen du).*

**MATILDA:** Zerbait erori da?

**ANJELI:** Malerusa! Beharrik zorbait untzi ba ziren zilharrezkoak! Dena fini nuen eta heldu nintzan:

**MATILDA:** Otoi ez zazula deusik hunki barne huntan (*Anjelik leihoa hesten du*). Eta zu, zoazi segidan! Izenaz oroitzera?

**EUXEBIO:** Margarita Lujan anderena.

**MATILDA:** Arta zazu ni banintz bezala. Edozoin galdeeri, arraposturik ez. Ixiltasun osoa.

**EUXEBIO:** Ez izan arangurarik hortan! Nabi dutana ixilpean gordetzen ez badaki ba nik! Hori baizik ez dakit untsa egiten? Nagusiarekin ikasia... (*Hori artean ateratzen da. Ixtant baten buruan, zaldi joarea eta urratsa, Euxebio joana da. Anjeli sartzen da, beti bezala ahizpak bezala bezti*)

### Matilda eta Anjeli

**MATILDA:** Bainan neska, noiz ikasi behar dun hire zain horien pixka bat kalmatzen?

**ANJELI:** Esku debru hauk ditinat! Hola naizelarik ez dakinat zer egin, xinaurritz beteak iduri.

**MATILDA:** Zer egin? To hire galtzerkia, horrek eztituko hu.

**ANJELI:** Oraikoan ez dakinat ba, lan handiegia hasia dugunez (*josten hasten*)

**MATILDA:** Ez dun sekulan gertatzen dena uste bezain beldurgarri. Bota zak lanari eta utz gogoeta hoiek.

**ANJELI:** Bainan ez dioiat ordea, gero ta beldurrago naun (*lana utziz*) Bainan ohartzen haiz zer gertatuko den hemen, neska ergel hori etorriko denean; eta jakinen duelarik zertarat ekar arazten dugun?

**MATILDA:** Bai bainan ez izi. Heldu den hori ez dun neska ergela. Mundu huntako berri ainitz dakien mediku bat dun. Ez dun batere izitzekorik ez lotsatzekorik.

**ANJELI:** Zer uste dun, ez dela estonatu ere?

**MATILDA:** Ez dinat hoinbertze erraiten. Lehen aldian elkar ikusiko dutenean baditakek pixka bat beldurtuko den eta berdin lasterka eskapatuko, bainan, azkenean bihotza nagusitu eta, zernahi egin araziko dakogu.

**ANJELI:** Hire amets xoroak! Neska horrek hemengo barri jakin bezain laster lekuak hustuko ditin. Ez dun zekonda bat ere egonen!

**MATILDA:** Ez dun ni bezain ongi ezagutzen.

**ANJELI:** Hik ezagutzen?

**MATILDA:** Bere letratik ageri din anima suhar baten jabe dela.

**ANJELI:** Bai, horren aintzinekoa ere medikuak zitunan eta ez tontoak, bainan ez duk nehor aste bat ere egon!

**MATILDA:** Heek, gizon gizaizo batzu zitunan. Hau berriz neska hardita.

**ANJELI:** Hainbat gaixtoago.

**MATILDA:** Ixo eta aski. Nik deliberatuari ez dik nihork ezetzik erranen.

**ANJELI:** Nik ez dinat nere idein erraiteko dretxorik?

**MATILDA:** Hi gazteago haiz.

**ANJELI:** Gazteagoa?

**MATILDA:** Bai, ni baino gazteago.

**ANJELI:** Eskolan ginelarik bai. Nik 9 urte, hik 14. Bainan orai 5 urteen diferentzia.

**MATILDA:** (*Kexu*) Bost minutarena balitz ere berdin. Ahizpa zaharrena naun eta aski beraz.

**ANJELI:** Bon... hola bada... (*berriz josten hasten dira. Mat. goxoago*).

**MATILDA:** Ez ditun urteak bakarrik... Adinaz bertzalde badinat nik beste zerbait nere alde...Hi anderena baihaiz...

**ANJELI:** Eta hi ez?

**MATILDA:** Ni ere bai, bainan beste era baterat. Jainko eta legearen aintzinean, andrea naun, emastea...

**ANJELI:** Bai; ezkondu eta zortzi egunen buruan senharra ehortzia. Aldi bat ere ikusi gabe... Hori dun zer nahi jakitea?

**MATILDA:** Zendako ez? Nere senharra zenak ezkontzaren ezagutzarik ez badaut utzi ere?, utzi datan alarguntzaren ezagutzea, luzea baino luzeagoa.

**ANJELI:** Bai ta arranda ederra gozatzeko. Ezkontza bezala ez dun zoriontsu izan, bainan negozio bezala. Aste baten emaztetza eta bizi guziko erretreta...

**MATILDA:** Anjeli...

**ANJELI:** Barkatu! (*josten ari da... Ganberatik orenak jo egiten du. Anjeli izitua eskualde guzietarat so... Kantuz hasten da...*)

**MATILDA:** Utzi Strauss bakean betikotz behin!

**ANJELI:** Eta hik ez dun aldi bat ere behatu bideari? Ez haiz orhoitzen neska ergel hartaz?

**MATILDA:** Bai, orai hura nian gogoan (*Papotik letra atera eta lunetak jaunzten ditu*). Hementxe dun bera den bezalakoa. Borondate handikoa, biozduna bere buru eta gogoen nagusi den neska ernea. Horra guk behar ginuena.

**ANJELI:** Bainan nun ikusten ditun horiek denak? 7 aldiz leitu dinat eta ez dinat holakorik ikusi!

**MATILDA:** Hik hitzak erran hahi duteneri behatzez dun eta nik letrak, hitzkiak erran nahi duteneri.

**ANJELI:** Ez ahal gaitun dolutuko...

**MATILDA:** Zer haiz beldur?

**ANJELI:** Ez dinat sorginkerietan konfientzia handirik. Ibili nintunan nere eskuetako lerroetan ene geroaren asmatzen... Erran zautatean ezkondu eta zoriontsu izanen nintzela, etxea seme alabez betea, eta hala ondorioa... Iloba bat bakarrik eta den hura hiekin erdizka, eta gizaldi gizaldietan mutxurdin.

**MATILDA:** (*Lunetak kenduz eta letra gordez*). (*Administradorea sartzen da. Roldan jauna, axeri ederra, eta paper zaharren berri untsa baino hobeki dakiena*).

Matilda, Anjeli, eta Roldan

**ROLDAN:** (*Harat hunat erabilki, kexu-kexua*) Ez da posible. ez. Nihundik ere. Erran zazue zuek ere ez dela posible...

**MATILDA:** (*kexu*) Ez dakit zeri diozun, bainan zuri behatzen bada, egia ditake.

**ROLDAN:** Egia da beraz? Arrotz bat etxe huntan sartzen zaukula?

**ANJELI:** Bai, zera! gure ahizpa hunek ezagutzen du, elgarrekin eskolan egonak balide bezala...

**ROLDAN:** Eta nork pentsatu du gauza hori? Zer duzue, zentzua galdua? Erran duzue andere horri argi eta garbi zertarat heldua zen?

**ANJELI:** Anderea ez, anderenoa...

**ROLDAN:** A ba anderenoa... Ainbat gaixtoago... Eta arraza hori gazte bati e skaintzea zuzen iduritzen zaitzue?

**MATILDA:** Zuk erakutsiko daukuzu zer den zuzen ala ez?

**ROLDAN:** Bai...

**MATILDA:** Alferretan ari zira. Zu gure diru zaintzalea zira eta besterik ez. Eta orai bakotxa okupa bedi bere aferetaz.

**ROLDAN:** (*Eztiki*) Halere, itzal handiko neska gazte bat bada, gaitz erdi.

**MATILDA:** Zuk zeri diozu itzal haundikoa?

**ROLDAN:** Urteetan abantzatua...

**MATILDA:** Hortako; hala hemen gu biak kasu hortan girenak...

**ROLDAN:** Bere bizibidean untsa ikasia... argitua...

**ANJELI:** Bere izenaren aintzinean «de» ikusi bazinu, etzinuen holako haurkeriarik errango...

**MATILDA:** Arrazoin duzu Anjeli.

**ANJELI:** Milesker Matilda.

**ROLDAN:** Neri gogor egiteko bakarrik elgarren artean aditzen duzue. Betikoa da. Bainan ez da xuxen, holako kasuetan bozkatu behar da.

**MATILDA:** Egin dugu ta gehienek baia eman dute.

**ROLDAN:** Nork?

**MATILDA:** Gu biek. Ni eta nere ahizpak akort ez girenean, nere botzak biga balio ditu.

**ROLDAN:** Hala beraz... Etxe huntan bazterrak errotzen ari direnez!

**MATILDA:** *(Kexu)* Ixo... Zer erran nahi dute hitz horiek?

**ANJELI:** Gure anaia burutik joan eta hil zela erran nahi duzu?

**ROLDAN:** Ez dut hori erran nahi, bainan bere burua xuxen duen batek ez zuen eginen hak egin duena bere semearekin.

**MATILDA:** *(Kexu)* Aski hortan oto! Utz ditzazu orai lehengo ixtorioak, eta arranger a gaiten burasorik gabe den haur gaixo hortaz. Haur hori orai gure gain da, eta ez dugu nehorren beharrik horren altxatzeko.

**ROLDAN:** Eta nik ez hortan dretxorik? Zuek aitaren arrebak zirezte ta ni amaren anaia.

**MATILDA:** *(zorrotz)* Ez da itz erdirik ere. Hemen parte bakarra, gurea da, gu... re... a... Amaren aldeko parterik hobe da ez aipatzea ere. Aditu?

**ROLDAN:** *(irri maltzur batekin)* Bon, ontsa da... Nik eskuak garbi ta kito...

**MATILDA:** Xuxen zira, diru zaintzale eta esku zikin, ez litake gisa...

**ROLDAN:** Emeki anderea... Nere konduak xuxen dira, eta zure meneko nauzu.  
*(zaldi urratsa hurbiltzen-ageri, xilintxa...)*

**ANJELI:** *(xutituz)* Ixo! hala karrosa.

**ROLDAN:** Hura da?

**ANJELI:** Hura berbera *(zalhu lanean hasten da)*.

**ROLDAN:** Ni orai soberakina nauzu hemen eta banoa.

**MATILDA:** Arrazoin duzu... Duelako 40 urte hoitan ez duzu holako egiarik erran.

**ROLDAN:** Milesker... *(karrosa, hurbilago)*.

**ANJELI:** Ni ere joaiten allai naiz?

**MATILDA:** Nihoiz izaitekotan orai da! *(Begiak zerurat bihurtuz)* Jauna egin bedi zure nahia!  
*(Anjeli ahizpa gaixoa, izitua, bere betiko kantuan ari da.)* Ixilik, Anjeli, ta xuti.  
*(Karrosa gelditzen da, Euxebio sartzen da, bi valisa eskuan, bidea erakutsiz: Margarita-ri.)*  
*(Margarita hau, neska gazte pollita, unibersitadetik ateratzen da. Neska ernea...)*

#### Lehengoak, Margarita, ta Euxebio

**EUXEBIO:** *(jendeak presentatuz)* Etxekanderea... beste etxekanderea... jauna...

**MARGARITA:** Egun on guzieri.

**MATILDA:** Ongi etorri etxe huntarat... Lujan anderenoa... Nere ahizpa Anjeli.

**MARGARITA:** Zer diozu?...

**MATILDA:** Roldan jauna... gure administradorea...

**ROLDAN:** Ongi etorri...  
*(Matildak lunetak ezartzen ditu eta so egiten dio luzaz...)*

**MATILDA:** Harritzeko da... Aste bat idurikatu ondoan ez nuen uste hoin gazte eta maitagarriko neskatxa bat zinela.

**MARGARITA:** Milesker anderea. Horiek denak ez dira sobera izanen nere eginbideen betetzeko.

**MATILDA:** Bihozdun eta goxoa uste izan zaitut bainan ez hoinbeste...

**MARGARITA:** Eta eni ere iduritzen bihotz oneko jendeak zireztela denak...

**MATILDA:** Beraz elgar lagunduko dugu?

**MARGARITA:** Nahi baduzue oraitik beretik.

**ANJELI:** *(geldi geldia dagon Euxebiori)* Zer ari zira hor? Zertako ez ditzazu anderenoaren puska horiek sartzen?

**EUXEBIO:** Ba, ene iduri ez dela hemen luzaz geldituko, ta zertako balio du goiti ta beheiti erabiltzea?

**MATILDA:** Nehork ez dautzu zuri deusik galdegiten. Zoazi berehala...

**EUXEBIO:** Ontsa da. *(Balisak etxean sartzen ditu)*.

**ROLDAN:** Euxebiok gauzak xuxen ikusten ditu. Agerraldi hau ederki hasi da, bainan ikusi nahi nuke segida...

**MATILDA:** Ez duzu ez irri eginen. Ez duzu zure lantegian deus presaturik egiteko?

**ROLDAN:** *(Bere muntrari behatuz)*. Lujan auderenoa, eguerdi bost guti da, oren laurden baten burian baduzu train bat... Har zazu zure onetan... *(Eta ateratzen da... Margarita, estonatu da...)*.

### Marga, Matilda, eta Anjeli

**MARGARITA:** Jaun hori ez biziki goxoa...

**MATILDA:** Ez dako kasu egin behar. Bere bizi guzia xifren erdian iragaiten du... bi eta bi lau direla... Gizaizoa... Nahi duzu bazkaldu?

**MARGARITA:** Untsa bazaitzue, geroxago... Lehenik zuen muttiko ttipia nahi nuke ezagutu.

**MATILDA:** Geroxago... Lehenik zombait galde egingo daukitzut...

**MARGARITA:** Galda ba. *(Hiruak jartzen dira, Marga bi ahizpen parean, etsamina batean bezala. Matildak letra atera ta Margari geldi geldia so egiten dio)*.

**MATILDA:** Aita ala ama zinuen maiteago?

**MARGARITA:** Nola?

**MATILDA:** Errazu ahalgerik gabe.

**MARGARITA:** Holako galderik ez zait sekulan gogoratu.

**MATILDA:** Behin ere ez? Ait'amak galdu ditutzularik ere ez?

**MARGARITA:** Sekulan. Ene burasoak ttipia nintzalarik hil dira... Elgar maite izan dute beti.

**MATILDA:** Ezin sinetsia diteke, bainan zure hitza aski da.

**MARGARITA:** Barkatu, bainan zerbait ez dut untsa konprenitzen... ez ahal datazue zuek eni letraz etxe huntan lana eskaini?

**MATILDA:** Bai, eta hau da zure errepostua.

**MARGARITA:** Eta zertako beraz orduan itxura gabeko galde horiek? Ni ez nauzue ume zurtz baten hazterate eta eskolatzerat ekar arazia?

**MATILDA:** Bai.

**MARGARITA:** Nun da beraz haurra?

**MATILDA:** Orai etorriko da. Harmarekin goizik joana da mendirat.

**MARGARITA:** *(izitua)*. Harmarekin bera, bakarrik?

**MATILDA:** Bai, Labri eta Xuri-rekin.

**MARGARITA:** Hala ere... zer dira horiek, mutillak?

**ANJELI:** Ez ba, bi xakur.

**MARGARITA:** Ez da posible... Eta zueri untsa zaitzue; haurrak bakarrik uztea harma batekin?

**MATILDA:** Aita ihiztari ona zuen eta harekin ikasia du untsa harmaren erabiltzen. Ez da hortan harritzekorik!

**ANJELI:** Buru hausterik handiena gertatu zauku, umezurtz gelditu denean. Mutiko horren bizi errogaben gidatzen, salbatzen, lagundu behar gaituzu.

**MARGARITA:** Bizia? Ni ez naiz gero medikua! Irakaslea naiz!

**MATILDA:** Hortarik hasi behar da... lehenik ikasi irakurtzen eta izkiriitzen... liburuak... eta gero biziari joan zaizkion mixterioak...

**ANJELI:** Badakizu, mendian lagunik gabe hazi mutiko bat da.

**MARGARITA:** Bai, konprenitzen dut... Zure haurra ahal da?

**ANJELI:** Nerea? Ez. Ni, anderenoa nauzu.

**MARGARITA:** Barkatu... *(Matildari)* Zurea beraz?

**MATILDA:** Ez eta ere. Ni ere, ezkondu izanik ere, anderenoa nauzu.

**MARGARITA:** Ez dut konprenitzen...

**ANJELI:** Gertatzen direnak dira. Nere ahizpak zortzi egun egin zituen ezkondata bainan ez zuen izaterik izan.

**MARGARITA:** Bainan jakiten ahal ditake norena den mutiko baxtert hori?

**MATILDA:** Nork erran dautzu baxterta dela?

**ANJELI:** Horren aita gure anai gizaizoa zen.

**MARGARITA:** Eta ama?

**MATILDA:** Atsulutuki nahi duzu hura aipa dezagun?

**MARGARITA:** Nahiago baduzue ixilik utzi, bego. Hura ere hila?

**MATILDA:** Bai ta ere.

**ANJELI:** Ez zen behar bezalako emaztea... emakume zirtzila... Bainan ez du balio gehiago aipatzea.

**MARGARITA:** Bego beraz hortan. Eta zuen mutiko hortaz arras arranguratuak zaudezte. Zer du bada?

**ANJELI:** Arras inoranta da.

**MARGARITA:** Badakit hori...Eta zer gehiago?

**MATILDA:** Izigarria da. Zanpatu eta ere ez da umilduko. Debrua bezain galgarria da, arrunt bihurria.

**MARGARITA:** Harritua nago. Eta ni baino lehen izan ahal du eraskalerik?

**ANJELI:** Bai, hiru ta hirua gizonak... Dohakabeak!

**MATILDA:** Lehenak goxo goxo hartu zuen, eztituko zuela, bainan berealaxe etsitu zuen. Bigarrenak arrazoinka bildu nahi ukan zuen, bainan aste baten buruko etsitu zuen harek ere.

**ANJELI:** Irugarrenak, indarraz garaitzeko gaitzeko asmoak hartu zituen; eta orduan hasi zen gure malurra... Ikusten duzu etxe gaineko hura? Handik behera bota zuen...

**MARGARITA:** Ezin sinetsia da... Handik behera botatu irakasleak!

**ANJELI:** Ez, irakaslea haurrak!

**MARGARITA:** (*trenpu txartzen ari*) polliki, polliki, ez nadin burutik joan... Haurrak irakaslea bota zuela leiho hortarik...Orduan, zonbat urte ditu zuen haur horrek?

**MATILDA:** (*ezti-eztia*) Hogoï ta sei...

**MARGARITA:** (*punpe batez xutitzen da*) Nola? (*begiak gordez eskuekin*) Barkatu anderea, nik uste ez dut untsa konprenitu... Sei urte erran duzu?

**MATILDA:** Hogoï ta sei...(Margak balantza egiten du eta fotilean erortzen)

**ANJELI:** (*kantuz hasten da., bere betiko aire berean*)

**MARGARITA:** Eta hortarat ekar-arazia nauzue? (*bere muntrari behatuz*) treinen tenorea noiz dela erran dautazue?

**MATILDA:** Otoi, urrikal zaite gutaz!

**ANJELI:** Entzun zazu bada ongi!

**MARGARITA:** Besterik egin ahal dut ba? Nik ez diot lan hori egin! (*Oihuka*) Nun dira nere balisak? Fite!  
(*Bi ahizpek inguratzen dute*)

**MATILDA:** Ezagut zazu otoi, zirt eta zart egin baino lehen...

**MARGARITA:** Zertako? Leitzen eta izkiriarten ikasi gabe adin hortarat arribatu den mutikoa, zer izan ditake? Eria? Edo burutik maingu?

**MATILDA:** Ez, ez da hala, zentzua xuxen du...

**MARGARITA:** Zer da, beraz? Arrunt basa?

**ANJELI:** Ez da hala...Aitak du hola hazia.

**MATILDA:** Mendi mendietan aitarekin bakarrik; denetarik urrun...

**MARGARITA:** Sofritzen dut, bainan ni ez naiz hunarat errokerien entzuterat etorria.

**EUXEBIO:** *(sartuz)* Zer duzue hola oihuka?*(urrunerat tiroa aditzen da)*  
**ANJELI:** Entzun duzue? Horra bere agurra!  
**MATILDA:** Zu bakarrik, zoazi haren biderat *(Margarita-ri)*  
**MARGARITA:** Nor? Ni? Su ta gar tiroka ari den erro horri? Milesker anderea! Hortakotz ez duzue, irakasle baten beharrik, hobe duzue ihiztari bat!  
*(Margarita apailatzen da partitzerat).* Goazen!  
**MATILDA:** *(aintzinean jarriz).* Egun bat bakarrik otoi, egun bat!  
**ANJELI:** Edo bederen oren bat... Zazpi aldiz amets egin dugun plazer hori ez ahal daukuzu errefusatuko? Ez duzu dretxorik!  
**MATILDA:** Bai, gazte horrek ez du sekulan ikusi zu bezalako neska gazte ta pollitik!  
**MARGARITA:** Bai, ta pentsu duzue zer gerta litakeen hemen, horrek ni haur buruz buru hatxematen banintu?  
**ANJELI:** Gauza ederrena, zoragarriena! Nehork sekulan ikusi ez duen munduko gertakaria naski!  
**MATILDA:** Lehenbizikotz neskata ikusten duen gizona, lehen aldian iguzkiaren sortzea ikusten duen bezala da, belaunikatzen da...  
*(Zaldi galopa gero ta hurbilago. Berriz ere tiroa, zakurren ihausia ta Pauloren irrintzina).*  
**ANJELI:** Oraikoan hemen dugu!  
*(Pauloren oihuak kanpotik).*  
**MARGARITA:** *(izitua)* Zakurrik ez, otoi, zakurrik ez!  
**EUXEBIO:** *(zakurren geldiarazterat abiatzen da).* Geldi... Labri; Couché...  
**PAULO:** *(kanpoan)* Harrapa zak bestia, Euxebio... Madarikatu hori...  
*(Paulo sartzen da, harma bizkarrean...Mutiko lodi ta azkarra... ileak nahasiak eta izerdi... Zaldizko oinetako luzeekin, gerian kartuxa andana bat).*

Matilda, Anjeli, Marga ta Paulo

**PAULO:** Izeba Anjelina, gora! Izeba Matilda, aupa! Hiru oren zaldiz horren ondotik, eta azkenean hatxeman dut, bada! *(Izeba bakotxa besotan har-eta itzulikarazten ditu).*  
**ANJELI:** Bainan zer harrapatu duzu?  
**PAULO:** Otso umea, bainan zerbait gusta zait! Hak garbituak zituen hamalau ardi ta gure xakur umea. Larrutuko dugu, eta larria bortan dilingan ezarriko. *(Kartux uhala kentzen du ta botatzen du eta Matildak biltzen du airean. Anjelic berdina zakua).* Eta ene zakurran ikusi bazinituen lasterka! *(Harma botatzen du, ta Margaritak, harritua harrapatzen du).* Aija... Aijalalala... *(Bet betan ohartzen da norbait baduela bere alderdian. Pixka bat gibelatu eta so jartzen zaie...).* Nor da hau?  
**MATILDA:** Margarita Lujan anderenoa.  
**MARGARITA:** *(dardaraz, harritua).* Zer diozu?  
**PAULO:** *(Ez dako neska gazteari kasu egiten ere. Hari bizkarrez dagola berriz lotzen da solasean bere izebekin).* Ikusi behar zinuen egun gure zakur umeen lasterak... mendietan gaindi... egun guzia... Ez ditut aspaldian hoin erne ikusi. *(Ixtant bat ixilik egon ondoan)* Zertarat heldu da hau hunarat?  
**MATILDA:** Margarita anderenoa, zure irakasle berria da...  
**PAULO:** Ez! Berriz ere irakaslea hori?  
**ANJELI:** Paulo, mintza zaitte poliki. Ez da gisa irakasle bati «hori» erraitea...  
**PAULO:** Ja, ja *(Besotik Marga hartzen du eta tiratuz)* Zauri hunarat... Ikusten duzu gain hartako leiho hura?  
**MARGARITA:** Ba, ba, ez duzu erte beharrik, denen berri badakit...  
**PAULO:** A bai! Nerekin bakean bizi nahi baduzun, badakin beraz nola joka... Bi adixkide... Ez irakasle ta... Adi zan untsa, hitz handi ta azpi joko horiek ez aipa sekulan *(Berriz*

*oixtiko sujet beraz*). Goiz alde zen... eta ene zakurrek zerbait senditu dute ta...  
**MATILDA:** Utz kitzu orai zure otso ta zakur ixtorioak. Hemendik aintzina zure ixtorioak  
andereno horrekin erabiliko ditutzu...  
**PAULO:** Eta zer erran behar dakot?  
**ANJELI:** Ez dakit ba nik. Untsa. so egin dakozu?  
**PAULO:** Ta zer ba, bestek ez duten zerbait ba ote du?  
**ANJELI:** Hori zuk erranen duzu gero...  
**PAULO:** (*Hurbiletik untsa so eginez*). Galtzekin balitz ez litake gaizki...  
**MATILDA:** Paulo!  
**MARGARITA:** Utzi anderea... Hola ezagutuko dut mutiko hau...  
**ANJELI:** Eta so egin dizkiotzu untsa begiak?  
**PAULO:** Nola ez ba! Biga ditu!

### Lehengoak eta Euxebio

**EUXEBIO:** Nagusia, zakurra odol husten ari zaitzu, aztapar ukaldi bat bildu du beharri  
sahatsean...  
**PAULO:** Segidan joan naiz. Salboi urarekin garbituko dugu. (*Euxebio doa*).  
**MATILDA:** Euxebiok garbituko au. Utzi bere gisa zure zakurrak eta egin entrada  
anderenoari...  
**PAULO:** Zendako? Irakaslea untsa da; zakurra aldiz odol husten ari...  
**MARGARITA:** Egia duzu. So egiozu, nik aizina dut.  
**PAULO:** Banoak berehala (*kanporat doa ta geldituz*) gurekin bazkalduko haiz?  
**MARGARITA:** Ez dakit ba, zuk nahi baduzu...  
**PAULO:** Neri berdin zaidan. Mahia ez dun ttipia ta hiretako izanen dun ausarki lekua. Zer dun  
izena?  
**MARGARITA:** Margarita.  
**PAULO:** Luzegi. Hemen gelditzekotan, Marga deituko hitut.  
**MARGARITA:** Hola untsa bazaitzu?  
**PAULO:** Hi mendi heietan izanen haizelarik ta ni hemendik oihuka, nola erran nezake Mar-ga-  
ri-ta-. Izen luze horiek ez dituk erretxak. Hobe ditik laburrak (*Eskuak ahoan  
ezarriz, oihu bat egiten du*): Mar-gaaa...! Zer iduritzen zaun?  
**MARGARITA:** Zuk nahi bezala.  
**PAULO:** Nik holako emazteak ditinat maite... umilak... (*gainetik behera irri batekin so egiten  
dio*). Sarri arte... (*ateratzen da*).

### Matilda, Anjeli ta Marga

**MATILDA:** Barkaku behar dakozu.  
**MARGARITA:** (*muitu gabe bortatik begira gelditzen zaio*). Harritzeko bada...  
**MATILDA:** Izitu ahal zaitu?  
**MARGARITA:** Bai zera! Gizon baten behakoak ez nau sekula hoinbertze gustatu. Nere bizi  
guzian ikusi dutan xarmerik ederrena. Gizon horren begi garbiak!  
**MATILDA:** Hogoitarte hoitan han gainean, mendiko etxe batean nehor ikusi gabe aita bakarrik  
egona da...  
**MARGARITA:** Eta aita nolaz egongi zen han? Burua galdua zuen ala? (*bi ahizpak elgarri  
begiratu eta buruak makurtzen dituzte*).  
**MATILDA:** Bai andrea bai. Ez nion nehor holakorik erran, bainan egia da.  
**MARGARITA:** Zoroa?  
**MATILDA:** Bihotzez maite zuen emaztearen saldukeriak burutik egin arazi zion.  
**MARGARITA:** Zer zen, maitasunez zoratu? Eta ama?



**ANJELI:** Irakurgai ergelek burua arindu ta amets txoroz betea, arras galdua zen.

**MATILDA:** Zuk ez dakizu zer sofrikarioak igan zituen gizonak; hogoi gauez nigarrez emazteari deika. Burua galtzekoa zen... Eta egun batez ixilik, lo zagon haurra hartu zuen ta...

**MARGARITA:** Bainan nola ez zinioten haurra hartu?

**MATILDA:** Ezin izan ginuen: «Seme hau nerea da, nerea bakar bakarra, garbi garbia biziko da, liburu ta emazterik gabe. Abere basa nahi badizue bainan abere zoriontsua». Ez zagon ez arras... burutik nahasia.

**MARGARITA:** Hasteko erro aldi hartan, pasa. Bainan zombait urteen buruan nolaz ez dakozue legez bederen kendu?

**ANJELI:** Ez da aita baten indarra duen legerik. Bere hura galdu baino zer nahi eginen zuen.

**MATILDA:** Joanak joan, orai badazkitzu gure segetu guziak. Orai entseia gaiten beraz mutiko horren bidearen xuxentzerat.

**MARGARITA:** Aise da erraiten. Zuek uste duzue zerbait egiten ahal dutala?

**MATILDA:** Gure esperantza guzia zutan dugu.

**ANJELI:** Eta zuk baduzu esperantza pixka bat?

**MARGARITA:** Nik dakita... gogoetan ari nintzan. (*Bat betan*) Utz nezazute gaztearekin bakarrik...

**BIAK:** Milesker anderenoa, milesker...

**MATILDA:** Zuen puska hauk joan ditut zure ganberarat?

**MARGARITA:** Bai, joan zkitzu, bai...

*(Biak joan dira, puskek harturik. Marga gelditzen da, bizkarrez, liburu bat harturik leitzen ari bezala. Paulo sartzen da, sagar bat janez. Neskari luzaz behatzen dio ixilik. Txistu bat egiten dio, berriz beste bat, bainan alferrik. Orduan erhiak ahoan ezarriz artzain xixtu luze bat egiten dio. Margak jauzi bat egiten du ta itzultzen da).*

## Marga ta Paulo

**MARGARITA:** Barkatu; irakurtzen ari nintzan eta ez nintzan ohartzen.

**PAULO:** Gezurra... Begi xokoarekin so egiten huen eta ez haizela ohartu? Nerekin garbi joka hadi, bestenaz...

**MARGARITA:** Egia duzu, bainan ez nakien nola has. Xakurra hobeki da?

**PAULO:** Ezagutzen ez dunan zakur ume bat hiri ibual zaun. Zertako galde hori?

**MARGARITA:** Zuretzat gauza handia delakoan. Zauri handia du?

**PAULO:** Ez dun gauza handia. Ozipin eta gatzez ederki garbitu zionat eta berehala azkartu dun.

**MARGARITA:** Eta ez du ihausirik egin?

**PAULO:** Abereak hiltzen ditun edo sendatzen; bainan beti ixilik, ikas zan hori. (*Sagarrari kosk eginez*). Nahi dun?

**MARGARITA:** Ez, milesker, gero, bazkal ondoan.

**PAULO:** (*Margaren ondoan lurrean jartzen da. Irriz noiztenka behatzen dio*). Tia... Tia... Tia... ixilla, goxoa...ta irakasle zira beraz...

**MARGARITA:** Nere ofizioa da... Ez zaitzu gustatzen?

**PAULO:** Faltsukeriarik argi ta garbi hobe da jokatzeari... Irakasleak denak berdinak zirezte, beti manatzen, bainan etxe huntan ez dun hori legea... Etxe huntan, ni naun nagusia gero!

**MARGARITA:** Eta, biek elgar untsa aditzen baginu?

**PAULO:** Nola?

**MARGARITA:** Nagusi orde, bi adixkide on izanez.

**PAULO:** Arrazoin ahula. Adixkideak berdinak izan behar dine, ta ez beldur elgarri begietarat so egiteko. Nik hiri so egiten dutalarik, hik begiak apaltzen ditun, eta gainerat

emaztea haiz.

**MARGARITA:** Eta ernazte izaitea, zer da gaizki?

**PAULO:** Gure aitak baietz zioian. Eta hak bazakian beti zer erraiten zuen.

**MARGARITA:** Nik ere erran nezake beste hoinbeste gizonentzat bainan ez ginuke bat ez besteak arrazoin. Ez ahal duzu zure burua arras bakar aurkitzen?

**PAULO:** Adizan, neri ez gehiago sekulan «zu» ka mintza.. Ni beti «hi» izaun naun, eta «zu» erten dukalarik iduritzen zaitak bertze norbaitekin ari haizela solasean. Aditzen dun?

**MARGARITA:** Hik nahi bezala.

**PAULO:** Nik hola maite (*Margaren belaunen ganean bermatuz xutitzen da*)

**MARGARITA:** Gu adixkide onak izanen gaituk...

**PAULO:** Ez naun enuxent bat! Beste irakasleak ere hola hasi zitunan... Goxoki, bizkarrean peekatuz, ta gero... danba... grammatika... diktea... kalkula... Geroztik mesfiatzen nun.

**MARGARITA:** Nik ez deat erakutsiko nahi dukanik baizik. Hiretzat lagun bat izanen nauk bakarrik.

**PAULO:** Bakartasuna ez dun gauza txarra.. eta orai usatua nun.

**MARGARITA:** Bainan lehen aitarekin bizi hintzan.

**PAULO:** A ori ba! Harekin ez nian beste beharrik. Orai berriz egunak luzexko iduritzen zaitak.

**MARGARITA:** Ttipian ere ez duk adixkiderik izan?

**PAULO:** Lagun bat, bai. «Begi eder», begi dirdirantak... hireen berdinak zitian...

**MARGARITA:** Zer zen, neska?

**PAULO:** Ez, basaahuntza. Urte osoan gurekin bizi izan dun... udaberria. jin arte, bildotsa bezain umil.

**MARGARITA:** Eta udeberrian ez?

**PAULO:** Ez ahal dakin zer gertatzen den udaberrian gain hoietan?

**MARGARITA:** Ez nauk behin ere izan mendietan.

**PAULO:** Abereak, haize beroa usainka hasten denean, debekatua zion hiltzea. Orduan, «Begi-ederra» hesia igan eta eskapatu zian, bururik itzuli gabe ere.

**MARGARITA:** Konprenitzen diat.

**PAULO:** Zer konpreniñu behar dun hik, ez dun sekulan basaahuntzik ikusi ere bizi guzian...(Amentsetan) Bai zoin ederrak ilargia beteko gau heik! Abere arrak marruka ta intzirika bai ta arkaitz artean buruka. Geroztik «Begi eder» ez dinat sekulan bakarrik ikusi... Orai ere, lehen bezain ezti? nun ote da, zaintzen dituela bere umeak? (*ixtant bat ixilik*) Eta hik, zonbat seme-alaba ditun?

**MARGARITA:** (*galde horrek nahasia*) Ni, bat ere ez...

**PAULO:** Harritzeko dun. Ta zergatik?.

**MARGARITA:** Neskato gazte naizelakotz...

**PAULO:** Alta aski handi haiz...Zer egin duk beraz orai artio?

**MARGARITA:** Eskola handi batean, ikasle...

**PAULO:** Eta neri ikasteko ekarria haute hunarat? Hik uste dun erakusten ahal datakala nik ikusi ta ikasi dutan erdia balio duenlk?

**MARGARITA:** Nork dakik? Liburuetan ere baduk asko gauza eder ikasteko...

**PAULO:** (*liburu bat mahi gagnetik hartuz*). Hunek zer zion?

**MARGARITA:** Erromanoen ixtorio zaharrak aipatzen ditik.

**PAULO:** Eta hau berriz, zer da?

**MARGARITA:** Horiek pertsuak dituk, entzuteko...

**PAULO:** (*jauzi batez mahainaren ganean jartzen da, bi zangoak kurutzean*). Hea irakur-zak zerbait...

**MARGARITA:** (*Argi irakurtzen du*). (*Hemen irakurtzen ahal dira bi pertsu..*) Zer diok horietaz?

**PAULO:** Harrigarri da! Zer gauza ederrak. (*mahaitik jautsiz*) Nun dira horiek guziak?

**MARGARITA:** Hor.

**PAULO:** Hor? Nork eginak?

**MARGARITA:** Ixkribatzaile handi batek: Lizardi jaunak...

**PAULO:** Errazkik berriz polliki polliki. (*Bertau horien entzuteko, Paulo jartzen da neskaren ondo ondoan*).

**MARGARITA:** Entzuteko hoin hurbil behar duk jarri?

**PAULO:** Ez denat minik egiten!

**MARGARITA:** Ez bainan nik hiri egiteko beldur!

**PAULO:** Ez inketa ene gatik. Irakur zan berriz. (*Margak berriz esaten ditu bainan buruz... Eta Paulok Margaren ondotik erraiten ditu zonbait pertsu*).

**MARGARITA:** Orain untsa ikasi dituk?

**PAULO:** Oraiko huntan baietz uste dinat. (*xuti ta liburua hartzen du*) Ez zukan ergela hori izkiriatu zuena. Eta liburu guzian holako gauza ederrak ditun?

**MARGARITA:** Bai, oso osoan.

**PAULO:** Zer domaia gure aita ez baita bizi! harek ere gogotik entzunen zitian. Hik ere bai?

**MARGARITA:** 7 aldiz irakurtia diat...

**PAULO:** Orduan nik ere beharko diat ikasi... irakurtzen.

**MARGARITA:** Mila esker Paulo.

**PAULO:** Goazen emeki... liburu huntan ba ote da hitz handirik?

**MARGARITA:** (*irriz*) Batere ez. Ixkribatzaleek ez die hein beharrik.

**PAULO:** Hobe. Bainan kasu, leitzen ikasiko dinat, bainan izkiriitzen ez!

**MARGARITA:** Zendàko ez bada?

**PAULO:** Liburu hori egin zuenak bezain ederki egiten erakutsiko datan?

**MARGARITA:** Ez hoin ongi ez naski...

**PAULO:** Hola ez egitekotan, bego bere gisa.

**MARGARITA:** Ez dik batio beratz hemen egon nadien.

**PAULO:** (*kexu*) Zer erran nahi dun? Joan nahi dukala?

**MARGARITA:** Egun ez naski. Bainan bihar bazitekek, egun batez beharko diat:

**PAULO:** (*Kexu*) Orduan zertako etorria haiz? Joaitekotan hobe dun joaitea orai segidan...

**MARGARITA:** Ez nauk hortan ari. Bainan ene plazerrik handiena litakek hiri ixkribatzen ikastea.

**PAULO:** Untsa dun. Erakutsi eidan izkiriitzen.

**MARGARITA:** Berehala hasten gaituk?

**PAULO:** Ez... Egungo aski gauza berri...

**MARGARITA:** Egia... Hitzeman dezagun itzaz... aita... ta menditar bizitzaz.

**PAULO:** Bai, gure aitaz... Ezagutu izan bahuen...Gizon ona, xuxena ederra... Harekin ikasi dinat asko gauza... Egun osoak zaldiz elgarrekin traka traka galopan. Iguzkia sartu eta, belar erdian etzaten gintian (*lurrean etzaten da*) holaxe, ahoz gora Jainkoaren ohe goxoan, gauari ongi etorria eginez. Aitak erakutsi daztek izarren izenak: Artizarra ta hiru ardiak ta... Banoti eman zion izena Adelaide. Adelaide izeneko izarrik ba ote da?

**MARGARITA:** Ez dakiat. Ba naski..

**PAULO:** Zer ez dakikala? Hoinbertze ikasi balinbadun, erran garbiki..

**MARGARITA:** Ez dakiat... Barka zak...

**PAULO:** (*Besotik hartuz*). Ez zaitut behatu begietan. (*Begitarterat behatuz. Eta goxoki*). Bainan zer dun? Negarrez ari haiz? Gaixtakeria zerbait egin dinat?

**MARGARITA:** Ez deusik ere... (*xutitzen da*). Nere buruarekin ari nindukan. Ederra zaitak orai bizitzea... lehen uste baino ederragoa...

Eta ni nor nauk, ez dakiat xakurren sendatzen, ez diat mendia ezagutzen ez dakiat izarren izenik... eta hala ere ni erakutsi nahiz etorria?

**PAULO:** Egia erran: hori huen bakarra?

**MARGARITA:** Bai hori bakarrik... ta orai utz nezak... Ez haiz garbitzerat joan beharra?

**PAULO:** Eta hik badakin igerika?

**MARGARITA:** Doi doia. Zergatik bada?

**PAULO:** Erreka hemendik bost minutetan dun. Goazen.

**MARGARITA:** Milesker. Ura izotza bezain hotza ditakek.

**PAULO:** Bai, ez nun ez ur beroan mainatzen nere izebak bezala.

**MARGARITA:** Ez diat ekarri ur jantzirik ere.

**PAULO:** Zertako?

**MARGARITA:** Jantzteko. Ez nauk larru has mainatuko.

**PAULO:** Eta zergatik ez hintazke maina buluzirik? Ez ahal haiz ba gazte, eder eta sano?

**MARGARITA:** Hala izanik ere, ez duk ene gatik. Hire gatik duk.

**PAULO:** Hori beltza... Ez haizela ene gatik axola!

**MARGARITA:** Geroxago ikusiko diuk. Hail bakarrik. Gero arte Paulo! (*Paulo etxe aldera abiatzen da, eta ezkerretara xori kantua aditzen da*).

**PAULO:** Ixo; entzuten dun?

**MARGARITA:** Zoragarri! Zer da, erresinoleta?

**PAULO:** Erresinola! Ja, ja! Bainan zer debru erakutsi dine hiri eskola hortan? Karnaba dun...

**MARGARITA:** Eta?

**PAULO:** Ba ahal dakin zer erraiten duen? Entzun zan. Ixo! Ezin diteke, ezin!

**MARGARITA:** Bainan hik konprenitzen duk zer erran nahi duen?

**PAULO:** Bai, ezin hobeki... Amodiozko kantua da... Bainan ez da oraino sasoia... (*xoria ixilduta*) halere bat bateko bero hau... ta?... haize lodi bero hau to... (*lepoa luzatuz, airea usaintzen du*). Nundik heldu da usain on hau?

**MARGARITA:** Etsakiat... Adar horiek segur ere...

**PAULO:** (*lili untziari hurbilduz*) Mertzika loretan... (*Airoski*) karnabak arrazoin dik, huna udaberria.

**MARGARITA:** Udaberria dugu? (*gibelka joanez; beldur*).

**PAULO:** Orai ohartu naun... usain on hori...ta begitarte eder hori...

**MARGARITA:** Zer begi?

**PAULO:** Hireak. Lehen ez dinat erran nahi izan... bainan ez dinat nihun hoin ederrik ikusi... (*liliak besotan hartuz*). Utz nezan hurbiletik behatzerat...

**MARGARITA:** (*mahi gibelean gordez*). Milesker Paulo, bainan orai hail mainatzerat. Trenpa aldi batek on eginen dauk.

**PAULO:** Hunarat geroz ez. Izaitekotz biak elgarrekin. (*hurbiltzen da...*)

**MARGARITA:** Otoi, Paulo... Nun uste duk girela? (*eskapatzerat doa*).

**PAULO:** Geldirik!

**MARGARITA:** Garrasiaka hasiko nauk!

**PAULO:** Geldirik zionat... (*bereganat tiraturik, musu luze bat emaiten dio. Gero utzi eta*). Orai oihu izan nahi badun, eta ikas zan behin betiko gizona dela hemen manatzen duena! (*bere paltoa kenduz*). Errekan izanen naun...

**MARGARITA:** (*oihuka gibeletik*). Basa... Basurdia...!  
(*bi izebak sartzen dira iziturik*).

Marga, Matilda ta Anjeli

**ANJELI:** Ez deusik erran, dena ikusi dugu.

**MATILDA:** Zer basa. Ausarta izan behar du hola indarrean musu emaiteko!

**MARGARITA:** (*begiratu ere gabe, errekarat so*) Ez, ez daki oraino musu emaiten, piko bat egin daut ezpainean.

**MATILDA:** Piko bat... Jainko maitea... (*ahuldua, fotilean erortzen da*). Gaixoa... (*oihu eginez*). Eusebio! ekarkitzu anderenoaren balisak!

**MARGARITA:** Ez, sekulan! Orai hemen geldituko naiz! Ez dakit hemen nik dakidaten beharra baden, bainan nik badut asko gauza ikasteko. (*berriz oixtian bezala xoriaren kantua*). Bai xori ttipi bai, bazakinat, udaberri! (*kanpotik Pauloren oihua*)  
Margaaaa!

**MARGARITA:** (*alegeraki aur egiten dio*). Paulo! ago ixtant bat, heldu nuk. (*Eta lasterka*

ateratzen da).

OIHALA

## Bigarren egintza

Handik zombait hilabeteren buruan, etxe barnea, ederki apaindua. Potil eder batzu, ximinei gainean kobreak... Udazkeneko ilunbea, Anjeli, liburuz eta tresnaz betea den mahai baten aintzinean, goxoki eta eztiki hartzen ditu Roldan jaunak bortizki erten dazkonak. Anjelik irakurtzen ditu Paulo-ren kaierak.

Izeba, Anjeli ta Roldan jauna

**ROLDAN:** Ez eta ez! Hau ginuen orai eskas!... Hunen onartzeko izan behar nuke beneditanoa. edo frantxiskanoa, baina ez dut nik martir izaiteko bokazionerik!

**ANJELI:** (*extiki*) Untsa, untsa, ez kexa otoi!

**ROLDAN:** Erraiten nuen bezala, ene hitzak ez du etxe huntan deusen baliorik. Hobekiena litake denen uztea ta partitzea!

**ANJELI:** Bai, jauna bai, ederki!

**ROLDAN:** Anjeli; entzun duzu zer erran dutan?

**ANJELI:** Barkatu! zer zinion?

**ROLDAN:** Oren erdi huntan ari nautzu utzi beharko zaituztedala. Baina gure mutiko horren kaierak dituzulanik eskuan, ez duzu deuserik kasu egiten, lur ikara izan eta ere.

**ANJELI:** Zer diozu? Nunbait lur ikara izan da?

**ROLDAN:** Orai arte ez, baina hola segitzen bada, gutien ustea... ukanen dugu...

**ANJELI:** Ez ez! Paul, baditake puxka bat erroa den, baina ez duzu ukatuko rnutiko xoragarriena dela?

**ROLDAN:** Xoragarria ahal zaitzu zuri ene bulegoan zaldiz sartzen dena?

**ANJELI:** Hori ere egin du? Debrua!

**ROLDAN:** Eta lohalditik jeiki arazten nau egun guziz harri kixkorrat botatuz leihorat. Ez da gehiago berina bat osorik!

**ANJELI:** Gizaixo! Haurkeriatik ez da sekulan gelditu... Baina ohart zaite zu haurra zinelarik ez duzu sekulan berinarik hauts?

**ROLDAN:** Baditake anderea. Baina nik haurrean ez nintuen 26 urte... Eta harri botatzea bakarrik balitz?

**ANJELI:** Beste zerbait egin dautzu oraino?

**ROLDAN:** Bere irrintzina basa horiek? Bere mintzatzeko manera! Zernahi erran du jendeari!

**ANJELI:** Hori ba, hortan ez du konbertitzerik. Zutan ari delarik ezin erranaz diogu «administradorea». «Azeri maltzurra» dio beti.

**ROLDAN:** Ba dakit ba hori... (*trixte*) Ez nu ikusten ahal ere... Zertako hori?

**ANJELI:** (*kaierari behatuz loriatua*) Zer gauza pollita!

**ROLDAN:** Hee...

**ANJELI:** Zer izkirio pollita?... Eta horra hementxe Marga-ren burua Paulok berak egina... Errazu, «Europa» majuskularekin izkiriatu behar ote da?

**ROLDAN:** Bai bixtan da.

**ANJELI:** Hala iduritzen zautan ba. Eta Amerika ere?

**ROLDAN:** Zer da, Amerika Europa baino ttipiago?

**ANJELI:** So egizu hunarat. Amerika ta Europa-letra ttipiz izkiriitzen ditu. Neska gaztearen izena aldiz beti Majuskula handi batekin. Ba ahal dakizu zer erran nahi duen horrek?

**ROLDAN:** Nola ez ba? Hiru huts egin dituela...

**ANJELI:** Gure mutikoa uros da!

**ROLDAN:** Zortzi hilabetez andereno hori gure etxen sartua dela... Zer egin du? Paulo bezain basa billakatu... beti ihizin dabila eta amarain errekan!

**ANJELI:** Anderenoa irakaslea da ta badaki nehork baino hobeki zer ari den. Kontseilu on bat nahi baduzu aditu, ez zaitela okupa bertzeen aferetaz eta zoazi zure xifre eta adizionetarat.

**ROLDAN:** Nere aferen jabe naizela uste duzu? Bai to! Ene xifretan ere norbaitek sudurra sartua du!

**ANJELI:** Eta nork? Anderenoak?

**ROLDAN:** Ez ez, bertze basa horrek; aspaldi huntan nere lantegian sartu eta, ari da zoko miatzen. Nahi nuke jakin zeren ondotik dabilan!

**ANJELI:** (*trufa irriz*). Badakit ba zer duen. Horrek zortzi hilabetez ikasi du basa horrek zure bizian ikasi duzun bezainbat, eta orai zure konduak ikusi nahi ditu, eta zu beldur kondu xuxenen agertzeke! Ez da hala?

**ROLDAN:** Orai hemen biziteko behar da kuraia handia, eta hobekienik litake lekuen hustea.

**ANJELI:** Hori ene ahizpari erran behar zinueke...

**ROLDAN:** (*Kopetako izerdia kenduz*). Ba, ez da gauza bera zure ahizparekin gauza horien aipatzea... (*Matilda sartzen da, lili andana batekin eta lili untzian ezartzen*).

#### Anjeli, Roldan ta Matilda

**MATILDA:** Aratsalde on... Orai ere kalapitan?

**ROLDAN:** Ez ba, biak akort ginen.

**ANJELI:** Pauloren bizitzeko moldea ez zaio gustatzen.

**MATILDA:** Zer du guti ikasten?

**ROLDAN:** Ikasteaz, ikasi du... (*Bortizki*). Bainan, nork manatzen du orai etxe huntan? Paulok. Eta Paulo nork manatzen du? Nundik heldu den nehork ez dakien batek!

**MATILDA:** (*Kolera handian, lore untziarekin eskainiz*). Xantxa duzu lore untzi hau karioa baita... Bertzenaz!!!

#### Lehengoak eta Euxebio

**EUXEBIO:** Etxekanderea. Roldan jauna hor da.

**MATILDA:** (*estonatu*) Roldan? Zoin Roldan?

**EUXEBIO:** Iloba Roldan, jaunaren semea...

**MATILDA:** Horra aita dira zaintzale, eta semea lege gizon. Horra biak gure ontasunez jabetu nahiz. (*Julio gaztea, apaindua, sartzen da, halako gezur irri batekin*).

#### Matilda, Roldan, Anjeli ta Julio

**JULIO:** Hauk zoriona! Itsas untzi eta hoteletako biziak ez du etxe huntako bizi goxoa balio! (*aita du hurbilena ta besarkatzen du*). Nola gira?

**ROLDAN:** Inkili mankala, seme!

**JULIO:** Ja, Anjeli maitea! Beti bezain gazte ta airos!

**ANJELI:** Milesker...

**JULIO:** Izeba Matilda... (*eskua luzatzen dio, ta Matildak bizkar gibelean gorde berea*).

**MATILDA:** Hobe duzu «izeba» kentzea. Matilda bakarrik.

**JULIO:** Oraino ninbera? Ta noiz arte?

**MATILDA:** Nigatik beti arte...

**JULIO:** Hemendik pasatzen nintzan ta bi hitz erran nintuela...

**MATILDA:** Hik bi hitz erraiten ditugularik, bat baduk sobera. Nik buruko min bat badiat ta gaur ni gabe beharko duzue afaldu.

**ANJELI:** Ni ere gaitzeko buruko min batekin naiz.

**MATILDA:** Ez hik gibela dun eri. Hobeki johan zaun... Jaunak...

*(bi ahizpak xutiturik ateratzen dira, Juliok so egiten diote eta zigarroa piztuz ahoan ezartzen).*

#### Roldan eta Julio

**JULIO:** Basa ahate paria (*oihuka*) egun batez ni izanen naun ba etxe huntan ta, zuek kanpoan! (*aitaren ganat itzuliz*) eta zer diozu beraz?

**ROLDAN:** Berri seriozak. Ukan duk nere letra?

**JULIO:** Bai ta harritu eta utzi dut. Zer duzu ba holako presa? Ez duzu errango bi neska tzar zozo hoiek izitzen zaituztela?

**ROLDAN:** Hoiek baino lanjerosago duk Paulo...

**JULIO:** Bere izenaren izkiriartzen ez dakien basa hori?

**ROLDAN:** (*gogeetaka*). Hori lehen zian, lehen. Orai emakok eskuan liburu bat eta berehala ikasten dik dena gogoz. Hor zabilak orai harro harroa, denetan sudurra sartua, denetaz kondu gaidegiten.

**JULIO:** Hori baino lanjerosago da ba neska hura. Zuk kartan izkiriartzen duzunaren arabera, Unibersitadean ibilia... Margarita Lujan... (*gogoetaka*). Izen hori ez dut arrotza.

**ROLDAN:** Ezaguna ahal duk?

**JULIO:** Bai, adixkide onak izanak gaituzu.

**ROLDAN:** Ez zakala uste izan diruz erosiko dukala. Harroegi duk hortako.

**JULIO:** Ez du nere aintzinean harrokeria handirik erabiliko... Utzi, utzi gostuan ene gomendio. (*kanpotik zakur ihausiak entzuten dira*).

**ROLDAN:** Ixo! Hor diuk Paulo. Goazen nere bulegoratz.

**JULIO:** (*aitari jarraikiz*). Margarita Lujan beraz... Untsa orroit naiz... Begi ederrak ahal ditu ba... Margarita... Margarita... (*zakur ihausiak gero ta hurbilago... xistuluze bat eta Margaren botza zakurrak ixil-arazi nahiz...*)

**MARGAREN BOTZA:** Te ici Labri... couche... hola... hola...

*(Marga sartzen da ihiziko tresnekin... kertuxak gerrian, harma biskarrean. Harma kenduz bizkarretik, botatze du fotil baten gainerat... kartuxak eta zakua bardin, Paulok egin zuen bezala. Mahain ondorat hurbildurik, so egiten ditu Pauloren kaierri. Lariatua dago... Txistuz ari da... Halakoik batean., so egin eta. nehor ez dela, sartzen ditu erhiak ahoan, txistu egin nahiz eta nehor ez dela, sartzen ditu erhiak ahoan, txistu egin nahiz bainan ezin egin... Berriz ere entseatzen da...)*

#### Marga bakarrik. Berehala Anjeli

**MARGARITA:** Ez dut sekulan ikasiko. (*Paltoko sakelatik sagar bat hartu eta kost egiten dio. Bortan izena Anjeli agertzen da*)

**ANJELI:** Bakarrik?:

**MARGARITA:** Agur Anjeli.

**ANJELI:** Paulo uste nuen zuekin zela, zakurrak aditzean, etzaituzte izitzen orai?

**MARGARITA:** Adixkide handiak gaituzu orai. Ihizin ibili gira.

**ANJELI:** Eta Paulo?

**MARGARITA:** Liburutegian ari da geldi geldia ikasten. Eta... Izeba Matildarekin elhe egin duzu?

**ANJELI:** Entseatu naiz bainan ez du nehor bere ideietarik aterako. Mutikoari sekulan amarik ez aipatzea omen da hoberena.

**MARGARITA:** Lehen ez dut erraiten, bainan orai ohartu da ama hitz bat baino gehiago dela. Paulok berea, bere ama nor zen jakin nahi du eta guk ez dugu dretxorik ez erakusteko.

**ANJELI:** Bainan etzaizu gogoratu egia erraiten ahal giniokela?

**MARGARITA:** Zerbaiten arrangura badu gogoan. Zertako erran digu ba etxe osoan ez dela amaren oroitzapen bat ere?

**ANJELI:** Berriz ere galdegin dautzu?

**MARGARITA:** Hortan ari da alderat zoko miatzen, eskuetan erabili nahiz hak bereetan erabili zerbait. Ttipia izanik ere ibual du... Behar nuzu lagundu.

**ANJELI:** Kutxa eta harmairu guziak miatu ditut.

**MARGARITA:** Ta zer atxeman duzu?

**ANJELI:** Denak hutsak... Doi doia medela ttipi bat eta fotografia bat.

**MARGARITA:** Fotoa, amarena?

**ANJELI:** Bai bere lau urteko semea besoan.

**MARGARITA:** Zer xantza! Erraiten ahal dut Paulori?

**ANJELI:** Izeba Matildaren permisionerik gabe?

**MARGARITA:** Zer balio du? Ez zaitela haren beldur izan!

**ANJELI:** Ez da ez bekdurkeria, lazakeria da... Ni besten menean ibiltzeko sortua naiz. (*trixteki*) Nere ahizpa aldiz bertzeen manatzeko... (*kanpotik, Pauloren oihua*). Mar-gaaaa!

**MARGARITA:** (*berdin oihu eginez*). Pa... u... looo... (*presaka Anjeli lagunduz*). Ekarrazu eni haren...

**ANJELI:** Eta Matildak jakiten badu?

**MARGARITA:** Zoazi gostian. Denak ene gain hartzen ditut...

(*Paulo sartzen da, liburu handi andana bat beso azpian, beti bezala gazte ta alagera*).

## Marga ta Paulo

**PAULO:** Nun ibilia zaku gure kapitaina? Iduritzen zaut berogoi urte hoitan falta zinela.

**MARGARITA:** Mendiz rñendi ibilia nauk Labri ta Xurirekin.

**PAULO:** Zerba.it hatxeman duzue?

**MARGARITA:** Bai zakur ttipiak erbia arrapatu.

**PAULO:** Biba zuek! Kontent zira?

**MARGARITA:** Loriatua... Gain heietako haize garbia odolero sartua zait... Zer gosea! Eta hik?

**PAULO:** Ni bost orenetan hasi naun ikasten... burua hantua dinat... ez dinat gosearen herrestorik ere.

**MARGARITA:** Untsa duk, bakotxa bere lekuan. Eta zer da berri?

**PAULO:** (*Liburuak mahai gainean pausatuz*). Bi liburu berri ditinat leitu eta hau, Roldanen bulegoan hatxemana. (*Liburu handia ta erakutsiz*). So egizan, dena xifre ta zirimarra ditun. Azeri zahar horrek ez dakik bertzerik egiten... (*liburua, botatzen du mahai gainerat*).

**MARGARITA:** Eta bertzerik zer leitu duk?

**PAULO:** Antzerki bat biziki ederra «Justuak» Kamus jaunak egina... Kamus... hura hura. gizona... aitak usu aipatzen zian... Eta hik ikusi dun behin ere antzerki hori?

**MARGARITA:** Bai, ikasle nintzalarik...

**PAULO:** Eni ere eder litakek hirekin teatroetan erabiltzea. (*ametslari*). Gero elgarri besoa eman ta karrikaz karrika ibiltzea, argiak eta gora ura botatzen duten iturriak ikusiz. Zoragarri...

**MARGARITA:** Oraino goixko duk hortako... Behar bada geroxago...

**PAULO:** (*Bet betan xutituz*). Eta zendako ez orai berean?



**MARGARITA:** Hango usaiak hemengoetaz bestalde dituk. Han batuk jende ergelak... bertzeekin irri egin nahi dutenak... jelsia...

**PAULO:** Nerekin ez litakek haratik ez hunarik... Ikusten dun ukamilo hau? Lehen ausartatzen zaukanari...

**MARGARITA:** Hortako gaituk bai ezin joan oraino...

**PAULO:** Asea nun ni, beti gero! Ez badun jingo, joanen nun bakarrik.

**MARGARITA:** Ez duk nitan konfientziarik?

**PAULO:** Oso-osoa.

**MARGARITA:** (*Anjeli heldu dela ikusiz*). Gaur karrika argitsuak eta iturriak baino gauza handiago zerbait...

**PAULO:** (*Gogoetan*). Zer?

**MARGARITA:** Horra izeba Anjeli.

#### Paulo, Marga ta Anjeli

**ANJELI:** Hire ama zenaren oroitzapenak... Ez diat bertzerik hatxeman ahal izan. (*Paulo trublataua, ez da menturatzen hunkitzera*)

**PAULO:** Hau gure ama zenarena zen? Bere eskuetan erabili ditu?

**ANJELI:** Bai, arras maite zitian.

**PAULO:** Zer da hori?

**ANJELI:** Hori hire jostatzeko erosia zuen jostagailu bat... Hemengo untzi huntarik ateratzen duk ttpiagioa, eta gero bestea eta bestea. (*Paulo hasten josteta untzi horiekin.. eta gero utzi eta...*).

**PAULO:** (*fotoa behatuz*) Eta hau? Nor da emazte hau?

**ANJELI:** Hori, hura... Eta hi besoetan...

**PAULO:** Enekin? Beha zakon Marga... (*garrasia bat egiten du kontentarekin*). Elgarrekin... Elgarrekin... (*fotoa bere bihotzaren gainean ezartzen du*).

**ANJELI:** Orain bakarrik utziko haitugu. Ez dea hala?

**PAULO:** Ez, ez, hi geldi hadi hemen... Barkatu izeba Anjeli bainan Margarekin nizalarik hobekiago senditzen dut nere burua.

**ANJELI:** Bai seme, bai. (*eta jalgitzera doa*).

**PAULO:** (*besotik hartzen du eta besarkatzen*) Milesker izeba Anjeli, Anjelitxi, Anjelitxo... Aingeru...

**ANJELI:** (*berotua*). Mutikoa; itoko nauk... basa... basurdia!!!

#### Marga ta Paulo

**PAULO:** (*Paulok ttantta laxatu eta...*) Zer inoxenta, naizena... Ez dakinat jendekilakoaren egiten.

**MARGARITA:** (*ondoan jartzen zaio*). Gerxago hobeki ikasiko duk...

**PAULO:** Etzakinat nola erran, bainan hi nere ondoan haizelarik, iduritzen zaitak nere amarekin naizela... Nolako begiak ote zituen?

**MARGARITA:** Urdinak.

**PAULO:** Urdinak? (*Margaren begieri so eginez*). Harritzeko duk, nik uste begi ederrak beti berdeak zirela... hireak bezala...

**MARGARITA:** Milesker.

**PAULO:** Urdinak... Ez dinat behin ere begi urdinik ikusi. Eta ileak?

**MARGARITA:** Gaztena kolore.

**PAULO:** Hireak bezala.

**MARGARITA:** Bai bainan luzeago.

**PAULO:** (*Margaren ileak usainduz*). Hire ileak mendiko airean usaina din...

**MARGARITA:** Goiz guzia iratze pean ibiliak nauk.

**PAULO:** Eskuak ikusi dazkok?

**MARGARITA:** Ttikiak eta pollitak.

**PAULO:** Hireak ere bai... Bainan erraiten ba deat ez haiz gaitzituko?

**MARGARITA:** (*irriz*). Ez duk erraite beharrik... ni baino...pollitago dela...

**PAULO:** Eta nitaz zer dion?

**MARGARITA:** Xarmegarria haiz...

**PAULO:** Orduan zertako ez haiz heldu enekin errekarat? Hemen ere (*fotoa erakutsiz*) larru hutsik nun...

**MARGARITA:** Ez duk berdin... Hor lau urte dituk bakarrik...

**PAULO:** Bainan ez dun hori gauza inportanta...

**MARGARITA:** Eta hik zeri erraiten diok gauza handia?

**PAULO:** Badituk gauza ttipiak: esku hau, udan beroa, ta neguan hotza, gau ilargi edo iluna...

Bainan badituk bi gauza biziki handiak... Erriotzea... ta... Jainkoa.

**MARGARITA:** (*harritua so*). Errango datak zer den heriotzea?

**PAULO:** Nik ainitz aldiz ikusi dinat nere inguruan heriotzea... lehen aldian, zortzi urte nintian.

Orroitzen haiz «Begi Ederrez»?

**MARGARITA:** Udaberrian partitu zen basa ahuntz hartaz?

**PAULO:** Egun batez, iluntxeari buruz bakarrik nintzalarik, ikusi nian heldu herrestaka...

Lepoan saki batekin... Hasi nintzalarik odolaren kentzen, so egiten zautaan; erranez bezala: «Ez haizela akit, mutikoa... ez dik balio... Nereak egin dik...» Su ondoan etzan nian eta hantxet egin zian geldi geldia... hotz hotza... begiak zabal zabala idekirik... Bainan Bixtarik ez... Etixerata aitak hitz bat bakarrik erran zian: «heriotzea» Eta orduan ikasi nian zer zen heriotzea.

**MARGARITA:** Heriotzea, ageri den geldi geldia eta hunkitzen den hotz hotza duk... Bainan Jainkoa???

**PAULO:** Jainkoa... Aldi batez ihizin erabili eta etxerakoan ilunak harrapatu nintian, eta basa bortuan galdu nian nere burua... Sekulan gertatu haiz gain heietan, lanoak erortzean?

**MARGARITA:** Behin ere...

**PAULO:** Ilunbe osoa, eta ixiltasun osoa... hotzikarrak arrapatua zaldiaren hanketaraino.

Memento hartan ohartzen haiz hire ez deusaz eta bakartasunaz... Eta bakartasun hartarik ihes egin nahi... Zaldia akulatu, bainan alferretan... daldaraka ari gelditu gabe... Eta orduan ohartu naun ez naintzela bakarrik. Ilunbetan norbait hurbildu... Nehor baino handiagoa... Nik ene beldurra ezin jasan, eta «Aita» oihu egin nian. Ordu berean, hori erran orduko, ortzia lehertu zian eta ximixtak mendia argitu... Orduan konprenitu nian Jaun Goikoa zela nerekin han zagona. (*Paulo ixiltzen da*). (*Marga hari so*). Gogoetan ari Marga? Ez dun konprenitzen?

**MARGARITA:** Bai Paulo bai, sekulan bezain untsa konprenitzen.

**PAULO:** Bon, utzi elhea, ta goazen lanerat.

**MARGARITA:** Bainan gaur berriz lanerat?

**PAULO:** Ez ez, hi hail lanerat. Nik bakantza zonbait hartuko ditinat...

**MARGARITA:** Zer egin behar duk?

**PAULO:** Orai arte egin ahal ez dutan zerbait. Gure amarekin josteta.

**MARGARITA:** So egiten ahal diat?

**PAULO:** Zertako? Hik so egizkik nere lanak eta utz nihaur. Aditu?

**MARGARITA:** Hitz-emaiten diat.

(*Marga bizkarrez mahainean jartzen da... Paulo aldiz lurrean. Eskuan fotoa hartuz, hari so egiten dio, xixtu eginez goxoki. Gero boitak hartzen ditu eta aldian bat kentzen, handi bat gero ttipiago, gero ttipiago, gero beste bat, beste bat... Paulo gero ta loriatuago xixtuz ari gero ta finkiago. Eta azken untsiaren barnean hatxemaiten du letra paketa bat estekatuak...)*

**MARGARITA:** Gauza bat galdegingo deat.

**PAULO:** Bainan so egin gabe. Zer da?

**MARGARITA:** Oixtiko basaahuntzaren ta mendiko ixtorioa... irakurtzen ahal ditiat?

**PAULO:** Zertako? Ez dezteat jadanik kondatuak?

**MARGARITA:** Montent nitakek berriz leitzea.

**PAULO:** Bon... Eta bestalde?

**MARGARITA:** Bai...Europa ta Ameriketa hitz ttipiz izkiriatzea... Bainan Heriotze ta Jainkoa... beti handitan...  
(*Paulok ez dio arrapostua egiten. Harritua da letra heieri so*) Entzun duk? (*Paulok korda hautsiz*). Entzun duk bai ala ez? (*Paulo harritua so dago eskuan dituen letreri*).

**PAULO:** Adelaida maitea... Adelaida? (*Ixilik irakurtzen du... bat betan letra itzuli ta sinaturari behatzen dio... Zuritzen da... Kexu*): Ez! (*beste letra baten hasten da sinadura so egiten ditu*) Ez! Ezin diteke...(oihuka). Ezin diteke!!! (*jauzi batez xutitu ta kartak ahurrean xehatzen ditu*).

**MARGARITA:** (*goxoki ta itzuli gabe*). Zerbait baduk? (*itzuli ta, so egiten du Paulok xehatzen dituen letreri...*).

**PAULO:** Ez... Ez... Ez...

**MARGARITA:** (*irakurtuz, goxoki*). Paulo!!!

**PAULO:** Ez, ez ditake egia.

**MARGARITA:** Paulo maitea! (*hurbiltzen zaie*).

**PAULO:** (*urruntzen du*). Ez, urrun hadi... ez nihor hurbildu... ez hi ere...

**MARGARITA:** Bainan nik zer egin deat?

**PAULO:** Ez nakala hunki!

**MARGARITA:** Ezin ditekek... Paulo... ez zakala hola so! Ez nauk Jainkoa... Marga nauk... Ez nauk ikusten? Bainan zer egin deat nik hi hola jartzeko? Hire gatik bere bizia - emango lukeen hunek zer egin dik? Mintza hadi, maitea, mintza hadi! Bainan zer gertatu da hemen bet betan?

**PAULO:** Utz nezan. Sekulan izaitekotan orai bakarrik egon behar dinat. (*kanporat ateratzen da*)

**MARGARITA:** Ez, ez hola. Lehenik errak zer gertatu den?

**PAULO:** (*letrak begiz hotz hotza erakutsiz*). Hori jakin nahi baduk horra hortxet arrapostua. (*kanporat abiatzen da. Marga belaunik hasten da letran biltzen. Paulo itzultzen da, ta saminki*) A, ta saminki ahantzi gabe, milesker leitzen erakutsirik!!! (*Marga belauniko, orai ohartzen da zer den. Eta Paulori galdeka ari zaio*):

**MARGARITA:** Paulo!!! Paulo!!! (*Paulok so egin gabe ere aintzina joan da, Marga kunkurtirik nigarrez hasten da... Erdiko bortan Julio agertzen da ta Margari beha gelditzen*).

## Marga ta Julio

**JULIO:** Lujan anderenoa. (*Margak ez du entzuten*)... Lujan anderenoa...

**MARGARITA:** (*burua altxatuz*). Nor da?

**JULIO:** Zure adixkide ona.

**MARGARITA:** (*Bet betan buria altxatuz*). Botz hori... Nor zaitut... (*itzuli eta*). Julio!

**JULIO:** Erteko maneran... ene ageraldiak ez dautzu onik egin...

**MARGARITA:** Zeren xerka heldu zira hunarat?

**JULIO:** Aspaldian ezagutzen dugu elgar orai «zu» ka artzeko...

**MARGARITA:** Nere bizi guzian nere ondotik erabili behar duzu?

**JULIO:** Ez nabil ni nehoren ondotik... Nere etxean nago.

**MARGARITA:** Zure etxea hau?

**JULIO:** Bai nere etxea Pauloren amaren aldetik. Nere izena ahatzia duzu ba?

**MARGARITA:** Julio Roldan... Julio Roldan... (*gibeleratuz*). Orduan egia da?

**JULIO:** Ez izi. Ez naiz hunarat heldu etsai bat bezala. Hain xuxen nere adixkidantzaren

eskaintzerat heldu nintzan... Joanak joan, gure artean pasatuak ez ditu nehork jakinen.

**MARGARITA:** Eta nik errefusatzen badut?

**JULIO:** Orduan segur dolutuko zaitzu.

**MARGARITA:** Berdin huntanta geroz berdin zaio. Zernahi gisaz goiz edo berant jakinen du?

**JULIO:** Bainan aldi huntan jina naiz ene bihotz onak pusaturik... Zerbaiten galde egiterat jina naiz. Entzun nahi duzu?

**MARGARITA:** Mintza zaitte...

**JULIO:** Zonbait aldiz ixiltasunak dirua balio du. Ni aberatsa bainiz gogotik eskain nezake...

**MARGARITA:** Eta zer da prezioa?

**JULIO:** Ezin merkeagoa. Zuk errana, Paulok begiak hetsirik egiten du. Hortako zer nahi sinaraziko dakozu.

**MARGARITA:** Hori da... Zuk izkiriaturiko dituzun paperak sina ditzala...

**JULIO:** Zu orai ere lehen bezain burutsua!

**MARGARITA:** Hitz erdi batez, legezko ohointza. Ez da hala?

**JULIO:** Legezkoa izanez geroz, izenak ibual du.

**MARGARITA:** (*xutituz*) Etzitzaitzun buruan pasatuko ni beldurtu eta hortarat ereriko nintzela... Zure bizia neskato airosekin iragan ondoan, hori da heiekin ikasi duzun guzia?

**JULIO:** (*xutituz, eta hotz-hotza*). Ixiltxago...

**MARGARITA:** Zoaz berehala etxe huntarik...

**JULIO:** A, hori ez! bihar arte hor naiz, eta zuk ez banuzu entzun nahi, beste batek entzun beharko du ba zure ordez!

**MARGARITA:** (*izitua*) ez ahal duzu holakorik erranen Paulori.

**JULIO:** Ez da atsegingarri, bainan obliarazten banuzu...

**MARGARITA:** Ez gaur, otoi! bihotz beltzegia litake! (*bortari so eginez*) luzapen bat galdatu nahi dautzut... Hitz emaduzu gaur ez duzula ikusiko...

**JULIO:** Eta gero?

**MARGARITA:** Gero zuk nahi bezala izanen da. Bainan gaur otoi ez!

**JULIO:** Ez uste izan ni hura bezala enganaturiko nuzula!

**MARGARITA:** Ikusi nuzu sekulan gezurra erraiten beldurrez?

**JULIO:** Orai arte ez!

**MARGARITA:** Orduan zoaz gostuan. Berriz jinen zirelarik hemen hataemanen nuzu, prest arrapostuaren emaitako.

**JULIO:** Untsa da, bainan orroi gauza guziek badutela finitze bat. (*atetik*) Ikus arte beraz, Lujan anderenoa. (*burua makurtzen du ta ateratzen da. Margak presaka lurrean diren gauzak biltzen ditu... Paulo sartzen da... eta so egiten Margari*).

## Marga ta Paulo

**PAULO:** Zertako dituzu hoiek.

**MARGARITA:** Gordetzerat nindoan.

**PAULO:** Ez akit. Ximinean ederkli eginen dine su.

**MARGARITA:** Hire ama ez duk ezagutu eta ezagutu gabe ez duk hastiatzeko dretxorik.

**PAULO:** Nahikoa... Hogoï urte bizi izan naun hura gabe, eta aintzina ere segituko. (*jartzen da fotilean, burua eskuen artean gogoetan*) (*Marga, hurbiltzen zaio*)

**MARGARITA:** Hobe duk oherat joaitea. Akitua haiz.

**PAULO:** Indar ahulezia baino okerragoa zaukanat. Ez dinat konprenitzen.

**MARGARITA:** Hea, bien artean.

**PAULO:** Hasi hartan, denak erretxak zaztaan, bainan gero ohartu nuk ez nuela konprenitzen ez eta konprenituko.

**MARGARITA:** Zer duk ba, buruan hartzen ez dukana?

**PAULO:** Orai berean, ganbaran nintzelarik, amari gogoetaka arizan nahi eta harek begi

urdinen orde hire begi perdeak nintuan gogoan, bere ileak iduri nahi, eta hire ile usaina bakarrik artzen. Zendako?? Zendako ote?

**MARGARITA:** Ez hadila eni sobera esteka... Oroitu egun batez elgar utzi beharko dugula.

**PAULO:** Hori lehen ere erran datak, bainan ez zaitan buruan sartzen.

**MARGARITA:** Emeki-emeki hori ezarri behar duk gogoan. Oroitu berdin gaur azken gaua dugula elgarrekilako...

**PAULO:** Ez gaurkoa eta ez nehoizkoa. Hemen hiz eta ez haut partitzerat utziko.

**MARGARITA:** Hori ezin egin ordea... Edozoin goizetan jaikitzean mendi batetik besterat oihuka hasiko haiz «Margaaaa» ta Margarik ez duk izanen.

**PAULO:** Zer ari haiz? Azken agurra ahal duk?

**MARGARITA:** Ez, egun hori heltzen derierako usatu behar duk. Ez ahal haiz ni gabe orai arte uros izan?

**PAULO:** Bai, hi arribatu aintzin, mundua gauza ederrez betea zian. Bainan orai inguratzen eta alegeratzen nuen gauza bakarra dun: Margaa;;... Marga...

**MARGARITA:** Hitz eder horiek entzutean, nere bizi osoa horientzat eman nezakek gogotik... Bainan ez ditakek... Ez hadila gehiago lotu neska bakarrari. Ez hintake berriz gogotik joan mendirat?

**PAULO:** Orai, berantegi?... Han nabiltzanian, ba ahal dakin noiz galtzen nuen loa? Gose nintzalarik, edo zauritua edo izitua. Orai aldiz, hi haitut nere zauri bakarra ta nere gosea ta nere beldurra.

**MARGARITA:** Izitzen haut?

**PAULO:** Gaur ba, ez ba haiz bestek bezalakoa... Ez zaun iduritzen haizeak ere usain on bat dariola?

**MARGARITA:** Larrazkeha duk... Lurraren usaina.

**PAULO:** Ez dun hori. Lur usaina eta hire larru usaina hemen ditun. Iduritzen zaitan aspalditik ere gaur zerbait barnaxago baden. Basaahuntza ta ximixtaren artean bezala hemen barne huntan sartu denez mixterio zerbait... (*gogoetan*) Ez dun zerbait senditzen?

**MARGARITA:** (*nahasia*). Bai ni ere nihoiz senditu ez dutan gauza batek inguratzen nik.

**PAULO:** Bazitakek sareen artean erori ta hantxe galduko naizeta, ta halere erori nahi. Gaurko gaua ez dun bertzeek bezalakoa. Lehenago ni nindukan azkarrena, eta orai hi indartsuena. Zertako?

**MARGARITA:** Libra zak hire burua nigandik Paulo, orai duk mementoa.

**PAULO:** Ez... Ez dionat... ahal banu ere, ez nezakak egin. Hik denak baitazkik, erran zak: zer da gogoan ariman eta odol zainetan erabilki den asmu berri hori?

**MARGARITA:** Etzakiat... Nik senditzen dutana duk hik ere segur ere...

**PAULO:** Ahotik jalgi aitzin hitzek berek daldara bat egiten dire barnean?

**MARGARITA:** Bai ta ere...

**PAULO:** Orduan, bi gauza handi, Jainkoa eta heriotzearen gainerat hitzak dardarizarazten dituen hirugarren gauza bat ere baduk hemen...

**MARGARITA:** Bai, Paulo... Hirugarren gauza bat... Jainkoa hirekin dukala uste ta memento berean, heriotz hatsa hurbil...

**PAULO:** Erran eni hirugarren hitz hori... Hire ahotik entzun nahi dinat...

**MARGARITA:** Etziok beharrik maite... Hirugarren hitz hori hoin handia bada, hobe dik ixilik erraitea... Hola...

(*Eta hurbildurik, beharritat erraiten dio... eta gero biak musuka ari direlarik*):

OIHALA

## Hirugarren egintza

Leku bera, ilabete zombaiten burua. Gaua da. Kandelak piztuak, Mahaia ezarria, kuberta ederrekin. Etxeko norbaiten pesta naski... Bi ahizpak berdin beztu, usaian baino apainduago. Ximinea piztua ta Oihala altxatzean, Euxebio loretegitik heldu da, beso azpian du damasana eta ximinei ondoan ezartzen du. Matilda sartzen da, apaindua eta elheketa ari delarik, harat hunarat erabilki da, gauzak aranjatuz.

#### Matilda ta Euxebio

**MATILDA:** Baduguia edari finik sariko?

**EUXEBIO:** Beti bezala, filetarentzat Burdeos zuria ta errakiarentzat Bordeleko gorria... usaian bezala. (*paketa bat emanaz*). Bujiak bixkotzarentzat.

**MATILDA:** Nun dira gure bazkaltiarak?

**EUXEBIO:** Roldan jaunarekin, etxe itzulia.

**MATILDA:** Aspaldian?

**EUXEBIO:** Ilargi betean daude. Bainan ixtantean, ene zango hunek diona, hemen izanen ditugu aterbean. Uhar bat heldu da.

**MATILDA:** Zer duzu zuk, zango hortan barometra?

**EUXEBIO:** Beldur niz ez ditugun errumatismak. Aitak utzi dautan ontasun bakarra bera.

**MATILDA:** (*bujiak kondatuz*). Hogoit ta lau; hogoit ta bost, hogoit ta sei. Ogoitasei... Urtea jadanik betea, nork erran... Iduri du atzo jautsia dela menditik gure otso umea... Bainan orai haatik... koztumarekin eta denekin... Iduri du bere bizi guzia erabilia duela... Ikusi duzu?

**EUXEBIO:** Bai, ederki da. Ba duzu oraino zerbait eskas?

**MATILDA:** Ez, untsa... Oraino afaltiarak ditugu eskas...

**EUXEBIO:** Har azu pazientzia... Ez dira... Ez dira biziki interesantak, bainan horiek izanki ahaide bakarrak!

**MATILDA:** Urruneko ahaideak, zorionez, bainan horiek ere Roldan'tar horietarik. Adar ustel hori beti gure etxen sartu nahia! (*mahi ttipi gainean so eginez*). Horiek zer dira? Nork edan ditu bi aperetifa horiek?

**EUXEBIO:** Nagusi gazteak naski.

**MATILDA:** Paulok? Ez du sekulan edaten. Bainan berak edan ditu?

**EUXEBIO:** Ez, Juliorekin. Oixtian biak hemen erabilki ziren elgarrekin, arras alegera.

**MATILDA:** Paulo ez da usatua eta kalte eginen zaio...

**EUXEBIO:** Zaude gostian etxekanderea. Burua untsa du bere lepoaren gainean.

**MATILDA:** Ez naiz fida. Kusia berriz etorritz geroz usu elgarrekin dira. Maltzurra da gero hori, ta zerbaiten xerka dabila.

**EUXEBIO:** Gazteen konduak! (*Izeba Anjeli beste plato batekin sartzen da*). Bada oraino zerbait egiteko?

**MATILDA:** Ez, milesker, zoaz Euxebio...

(*bi ahizpak gelditzen dira lanean ari aferatuak*).

#### Matilda eta Anjeli

**MATILDA:** Bere lehen urte mugaren ospatzea, gure gazte denborako egun heietaz orhoitzen haiz? Bota, sua opilari Anjeli.

**ANJELI:** Bai, Matilda, labean sartu dinat.

**MATILDA:** Bainan ez dun artekarik utzi.

**ANJELI:** Ez, ez dinat utzi...

**MATILDA:** Bainan erreko dun bixkotxa!

**ANJELI:** Bai erreko dun...

**MATILDA:** Bainan zer dun, Anjeli?

**ANJELI:** Bai Matilda bet betan...

**MATILDA:** (*harriturik begira*). Anjeli! (*Anjelik harrizkoa iduri, begiratzan ez jakin nun. Matildak inharrosten du*). Erna hadi! Zer gertatzen zaun bada gaur?

**ANJELI:** Utz nezan...

**MATILDA:** Ez buruz buru begira ta erradatak zer dukan. Zer gertatzen da gaur hemen?

**ANJELI:** Uzteko erran dinat. (*burua eskuen artean hartu eta nigarrez hasten da... Matildak goxoki hartu eta...*).

**MATILDA:** Nik uste haino handiago zerbait!

**ANJELI:** Ez nian nehori errango, bainan ezin ixildu gehiago... Marga joanen dela gaur etxe huntarik.

**MATILDA:** Marga joan dela? Eta zergatik?

**ANJELI:** Nik dakita? Sartu nun haren ganbaran, ustez eta nehor ez zen eta han atxeman dinat, nigarretan, balisak eginak zituela.

**MATILDA:** Zer erran daun?

**ANJELI:** Deusik ez, Matilda... Pauloren onetan johan zela eta nehori ez erraiteko hura urrundu arte. Zerbait egin behar diun Matilda, ez diuk hola partitzerat uzten ahal!

**MATILDA:** (*deliberatua*) Untsa dun. Orai pentsu dinat zer pasatzen den. Beti akitua eta zuri... Begitartetik besterik ez din ageri...

**ANJELI:** Zerbait gaitz arrapatu ote din?

**MATILDA:** Aspaldi huntan Marga ez dun lehengoa. Oroit hiz, aldi bat atsaldekoaren egiten ari ginelarik, flakatu baitzen eta, mahain gainerat erori.

**ANJELI:** Bai orroit nun.

**MATILDA:** Behin baino gehiagotan ukan ditin truble ta nahaste batzu... Bai ta ainizetan ikusi dinat negarrez ixilik...! Neskaxa bat hola ikustean kasu, gaitz orde, bertze zerbait baduen...

**ANJELI:** (*konturatuta*) Ea?

**MATILDA:** Bai Anjeli bai... Eta nolaz ez gira gauza horri orai arte ohartu?

**ANJELI:** Orai oroitzen nun bai, Roldan'ek holako zerbait aipatu zuela lehen egunean berean...

**MATILDA:** Horrek nik ba, erroarazten... Beti bezala Roldan horiek bazterren nahasle... (*urrun ageri dira, Julio ta Paulo kantuz orroz beldu*).

**ANJELI:** Hemen ditun orai. Zer egin?

**MATILDA:** Gaurko hau pasa dezagun egin ahala untsa. Marga-ri erran ez dela hemendik joanen nik erran arte, ta jakin dadila gurekin afaltzerat edozoin gisaz. (*Anjeli abiatzen da*). Kentzak opila labetik... (*biak ateratzen dira. Erdiko bortatik sartzen dira Paulo ta Julio lepotik lotuak; Paulo alegeratua. Julio aldiz; edaten usatua bere aire maltzurarekin...*)

## Paulo ta Julio

**PAULO:** (*alegeraki*). Handia haiz Julio. Bainan nola bizi izan nauk gaur arte, adixkidea zer den jakin gabe... Ekarrak eskua adixkide... (*elgar besarkatzen dute*).

**JULIO:** Paulo, banakian munduko adixkiderik hoberenak izanen ginela...

**PAULO:** Emazteak dituk berexi nahi gaituztenak... emazteak. Horiek ez dakie nigar egiten baizik. Hori zaiotek eder. Gizonek aldiz ez die negar egiten bainan edaten... Emaztea abere negartea duk, gizona, aldiz adimen handiko aberea. Beste besarkada bat?

**JULIO:** Besteak beste, kopa bat xanpaina?

**PAULO:** Bai, ori ori! (*buxuna kentzen dio mahai gainean den botoilari. Xanpana ixuriz basoetarat*) holaxet. Hagun handi batekin... gure osagarriari... ba ahal duk munduan adixkide on bat baino gauza ederragorik?

**JULIO:** Bi adixkide...

**PAULO:** Bien osagarriari bada...

**JULIO:** Hire onerako... (*biek edaten dute. Paulok basoa klik huts eta, fotilean erortzen da...*).  
**PAULO:** Ah... xanpainaren indarra. Egun osoa zaldiz ibilia banitz bezala, belaunak kalak egiten die... (*Bet betan xutituz iduri eta zerbait gogoratzen zaiola*). Hori duk ba... Xanpana ta zaldia biak berdinak dituk... Biek haguna muturrean eta zainetan... Horra zaldia botoilan sartua...  
**JULIO:** Ederki errana! Handia haiz hi... ez duk hi bezalakorik...  
**PAULO:** Horixe, beste baso bat anai?  
**JULIO:** Bizi osorako... (*Paulo berriz fotilean erortzen da*). Orai entzun nahi duk ixtant bat nik errana?  
**PAULO:** Zer duk lan zerbait neri egin arazteko orai?  
**JULIO:** Ez, lana nik eginen diat, hik aski dut sinatzea (*paper luze bat erakutsiz*) hementxe.  
**PAULO:** Bainan orai berean? Ez duk aise. Lehenik leitu behar nizek!  
**JULIO:** Zer erran nahi duk? Errefusatzen dukala?  
**PAULO:** Ez ez, bainan irakasle xoxo horrek ez datak erakutsi eskuinarekin izkiriartzen baizik. Eta untsalaz paper handi horiek ezkeraz sinatu behar...  
**JULIO:** Ezkerarekin? Nork erran dik astokeria hori?  
**PAULO:** Ene aitak. Ihizin zelarik kartuxa batekin eskuina kolpatu zian eta ez zian gehiago ezkerarekin baizik sinatzen... (*xutituz*) hemen gertatzen dena, hi oraino gaztetxo haizela enekin tratuan artzeko ta ez haizela ohartzen... Beste baso bat?  
**JULIO:** (*Koleran, zurutua*). Ez... (*paperra gordetzen du*).  
**PAULO:** Hara bestia berriz... Elurra bezain zuri hago! Beltza hadi gero... Hi usatia haiz edaten za ni ez... Ta hiri kalte egin... (*inarrosten*).

Matilda, Paulo ta Julio

**MATILDA:** (*ausarta sartuz*) Erna hadi Paulo, ongi etorriaren egiteko afaltiarri. Hail bisaia horren freskatzerat eta orraztatzerat.  
**PAULO:** Baniazu, ez kexa... Milla esker Julio... Alafe ez diat nere bizi guzian holako memento goxorik pasatu (*bortatik ateratzean*) eta ez ahantz... Holako paper batzu ezkerarekin sinatzen direla... Ezkerarekin.

Matilda, Julio ta afaltiarrak

**MATILDA:** Ez zira ahalge, usatia ez den mutikoa hori hola mozkor-arazteko?  
**JULIO:** Ez zaitela inketa! Paulok burua zuk eta ni baino erneago du.  
**MATILDA:** Eta zer nahi zuen? Roldandarrek ez dute sekulan bakerik... beti maltzurkeria...  
**JULIO:** Ez zaitela kexa anderea. Zer erran lezakete gure afaltiarrek? (*Orduan sartzen dira afaltiarrak Roldan jaunarekin*); (*Perez Roldan jauna medikua. Antropologia irakasle eskola handi batetan. Bere emaztea, apaindua, Lola, edo Lulu nahiago du entzun. Harro-harroa dabila, bere senar jakintsunarekin. Alaba, Fifi, pollita, ta denbora berean pixka bat xoxoa*)  
**LULU:** Matilde maitea... Etxalde inguruan erabiliak gira... Zer leku ederrak. Zer kanpoak!  
**MATILDA:** Milesker!  
**ROLDAN:** Hau ez da deusik. Ikusi behar zinuek gure mendiko etxea bere artaldearekin.  
**FIFI:** Amets zoragarria!...  
**IRAKASLEA:** Eta mutikoa nun da?  
**MATILDA:** Ixtantean hemen izanen da. Joan naiz beztitzerat. Barkatu...  
**LULU:** Zoaz, zoaz.  
**MATILDA:** Julioreen konpainian uzten zaituztet. Ni baino trebeago da aperetifa hoietan ere. Berehala heldu naiz (*ateratzen da*)  
**JULIO:** Martini, Porto?



**LULU:** Ez duzu bertzerik?

**JULIO:** A bai , blanc d'Anjou.

**LULU:** Edozoin, ibual du. Merci beaucoup (*Juliok adetarat emaiten du*).

**JULIO:** Eta zuk Fifi?

**FIFI:** Nik Martini xorta bat, zitroin xerra batekin... (*mahai gainean sandwich bat hartzen du*)...

**JULIO:** Eta zuk mediku jauna?...

**IRAKASLEA:** Zer nahi... Ni basa mutiko hori ezagutu nahia naiz.

**JULIO:** Berantetsia duzu? (*basoa eskainiz*).

**IRAKASLEA:** Bai, ta nola! liburu baten izkiriartzen ari naiz: «Egungo abereak eta lehenagoko gizonak». Egun ikusiko dutan etsenplu horrek loriatuko zuen Emerson de Rousseau izkribatzaile handia ere...

**ROLDAN:** Ez zazula sobera ametsik egin. Orai duela urte bat ez dut erraiten, bainan orai arras kanbiatua da...

**FIFI:** Nik ere ikusi nahi bainan izitzen nau. Lehen aldian emaztea ikusi zuenean, oihuka ta jauzika hasi omen zen; eta ausikika.

**LULU:** Horren ausikia hartzen ahal huke... Paulo aberats puxanta duk. Eta bertzalde hire aita ziona lehen ausikia dun gaixtoena... Eta gero musua.

**ROLDAN:** Lehendik kanbiatu da. Bainan gibelago naski iduriz segurik.

**FIFI:** Dena den, odolean deramakiguna ez dugu ahanzten... Segur naiz... gauaz garrasiaka igaiten dela arbola gainerat.

**IRAKASLEA:** Ederki alabatxo... Hola egiten zuten lehen gizonek.

**LULU:** Ez nazazula izi... Zer duzu ikusiko bada? Zimino bat kostuma eder batez jauntzia?

**IRAKASLEA:** Hori baino ederrago. Grotetan bizi diren heietarik bat. Aitak etzian elheketa ikasi behar. Ordian ordian ederki...

**JULIO:** Horiek guziak. alderat utzirik, Paulok odolean duena guretzat gauza biziki iriportanta da, ondore handikoa diteke?

**LULU:** Zer ondorio?

**JULIO:** Guretzat hoberena... (*hitzak ixilduz*). Ahantzi ahal duzue haren aita hogoi bat urtez ez zela lege bidez bizi izan?... eta azkenik zozoturik hil zela?

**FIFI:** (*izitua*) Ez, ez dadila ni ganat hurbil... aditu... e? Hurbiltzen bazait lasterka eskapatuko naiz gero?

**LULU:** Hik, nik erranak eginen dituk... Eta loretegirat joiteko erraiten badauk, joanen haiz...

**FIFI:** Ilunbean basa horrekin?

**LULU:** Ilunbean denak berdinak ditun... neska... Har zan goxogoxoa hire burua eskaini behar badion ere... ai... barkatu... Ez dakit zer diotan ere...

**ROLDAN:** (*nor bait heldu dela adituz*). Ixilik... (*Izeba Anjeli sartzen da*).

#### Lehengoak eta Anjeli. Gero Paulo ta Matilda

**LULU:** Anjeli maitea... Orai mintzo ginen zure ilobaz... Fifi daukan zoramena ezagutzeko... Oraiko gazteria hau...

**ANJELI:** Berehalaxe ezagutuko du ba... Heldu da (*bortan Paulo agertzen da saltsa bezala apaindua, orraztatua*)

**PAULO:** Jaun andereak, gau on guziera (*hurbilduz eta emazteak bertze urrats bat gibelerat. Ixiltasun handiena. Izeba Matilda ere sartzen da, ta bortan gelditzen, memento bat*).

**MATILDA:** Zer zirezte, denak mututuak? Hurbil hadi seme (*Paulo gizonki hurbiltzen da*). Perez Roldan anderea (*presentatuz*).

**LULU:** Barkatu, izeba. Lulu nahiago dut.

**PAULO:** Lola ez ba... Lulu... (*besarkatzerat doa*).

**MATILDA:** Hola ez. Andereak ez dituk besarkatzen. Eskuan musu eman bakarrik.

**PAULO:** Barkatu...*(eskuan musu emaiten dio, jende handiak bezala)*. Zure oinetan anderea...

**LULU:** Milesker... Goresmenak... Hogoita zonbat?

**PAULO:** Hogoitasei.

**LULU:** *(Hatsa hartuz)* Ai... Adinik ederrena... Hau berriz gure alaba Fifi.

**PAULO:** *(izeba Matildari)* Huni ere eskuan musu behar diot?

**LULU:** Bai zera! Huni ez... Ez ahal zirezte kusi urrunak? Nahi baduzu emakozu musu bat kopetan.

**LULU:** *(jauzika, gibelerat egiten du)*. Ez!

**PAULO:** Kopetako musu horrek ez dio onik egin... Beste nunbait nahiago naski...

**MATILDA:** Emakozu eskua.

**PAULO:** Gogotik *(eskua tinkatzen dio azkarki. Eta gero neska bere esku minberatuari so)*.

**ANJELI:** Ez zazula kasu egin... Indar haundiegia du eta ez daki bere indarraren berri.

**PAULO:** Fifi zira beraz... Harritzeko da... zertako?

**FIFI:** Egia erran Josefina dut izena... Bainan etxeokoek Fifi pollitago dela diote eta hala erraiten dautate.

**LULU:** Zure ezagutzeko haur hunek zuen errabia... Ez du bertzerik aipatzen. Gero elgarrekin joanen zirezte... Ez da hala gaztea?

**FIFI:** Bai ama.

**MATILDA:** Perez Roldan medikua ta Antropologi irakaslea.

**PAULO:** Besarkada irakasle *(bere kontra tinkatzen du)*.

**ANJELI:** Ez hoinbeste tinka, itoko duk. *(Izebak edariak eta gaineratikoak eskaintzen dituzte afaltiarri. Batzu xutik, besteak jaria bainan ez da nehor jartzen mahaian)*.

**IRAKASLEA:** Galde batzu egingo daukitzut.

**PAULO:** Bota ba.

**IRAKASLEA:** *(basoa utzi ta liburu ttipi bat ateratuz)*. Zoin dira zuretako jostagaiik maiteenak?

**PAULO:** Ihizia ta arraintza.

**IRAKASLEA:** *(harro harroa)* Ez ahal dautzuet erran? Hirugarrena joka artzea naski.

**PAULO:** Ez ori ez... Ni mendiko gizon basa bat naiz. Joka artzea uzten dut zuek bezalako gizon eskolatuentzat.

**IRAKASLEA:** Eta desinak?

**PAULO:** Eder zaizkit.

**IRAKASLEA:** Segur nintzan *(eta bere karneteian izkiriitzen du)*. Eta gauza ditirantetan, zoin nahiago dituzu? Orratzak, kolierak ala petentak?

**PAULO:** *(extiki)* Izarrak eta neska gazteen begiak.

**ANJELI:** *(harro harroa)* Jar zaite, jar, erakasle.

**FIFI:** Xarmegarri... Noiz joanen gira baratzerat?

**IRAKASLEA:** Gero, haurra, gero. Nik behar dut orai... Zoin hitz zaizkitz ederrenak? Luzeak ala laburrak?

**PAULO:** Laburrak. Fifi, Lulu ta holako izen batzu.

**MATILDA:** Jarri, irakasle, jarri.

**ROLDAN:** Ez ahal litalke hobe horiek denak...

**FIFI:** *(xutituz)* Goazen aitaxo. Otoa idekia dugu ta mutilak uhar bat heldu dela erran du.

**PAULO:** Bai gaur, tenpesta dugu naski.

**IRAKASLEA:** Jarri nahi ahal dezute denak enekin?

**ROLDAN:** Hobe duzu uztea irakasle.

**IRAKASLEA:** Galde bat bakarrik... ta minbera... ez ahal zira kexatuko?

**PAULO:** *(kexu)* Ni arras goxoan naiz. Erran zazu *(afaltiarrak berriz jarri dira, denak eskutan... Ixiltasunean izeba Anjeli-ren kantua entzuten da... beti kantu bera...)*

**PAULO:** Strauss utzi bakean izeba... Erradazu, erran.

**IRAKASLEA:** Zure zaldi ta xakurrak maite dituzu naski.

**PAULO:** Begi niniak bezala.

**IRAKASLEA:** Bainan zure barne hortan ez ahal duzu sekulan abereak jo ta xehatzeko ideiarik izan?

**PAULO:** Nik abereak gaizki hartu... ez ta sekulan ere... Ikusten dezute, orai ari naiz ba galdeeri gelditu gabe arrapostu emaiten.

**IRAKASLEA:** (*Estonatua*) Hitz hoiekin zer erran nahi duzu?

**PAULO:** Oraino gehiago xehetasun nahi? Segizkitzu beraz zure galdeak.

**MATILDA:** (*izitua eta xutitua*) Ez seme ez, hau sobera da.

**ANJELI:** (*xuti ta ahizpari begiratuz*) Hi ixilik eta hik Paolo segi (*denak arrabotsa eginez xutitzen dira.*)

**LULU:** Hau ez da soportatzen ahal... hemen...

**ROLDAN:** Ez kexa! hau da elgarren arteko afaria!

**LULU:** Barkamena galda berehala...

**FIFI:** Goazen ama. Orai hasiko da orroaz.

**JULIO:** Huntaratzea...

**IRAKASLEA:** Ezti, adixkideak eta ixo, jakintsaren izenean...

**LULU:** Berriz ere zutaz trufatuko da...

**IRAKASLEA:** Ixilik, erran dut. Erasi aldi bat gora behera, berdin du.

**PAULO:** (*gero ta kexuago*) Jakitate zoragarria zurea! Zure jakitateà atxikazu zu bezala. sendo direnentzat...  
(*Hori erraiten, Marga, untsa beztitua, sartzen da.*)  
(*Pauloren ganat joanez ezti arazteko.*)

#### Lehengoak eta Marga

**MARGARITA:** Paulo, Paulo maitea... Ezti hadi... Hire onetan duk...

**PAULO:** Hara hor hire munduko hiretarat, hire kastakoak... Zikinkeri hortarat ereman nahi nindunan?

**MARGARITA:** Zer egin dezute bere onetik hola ateratzeko?

**PAULO:** So egin zezak hoieri... Horiek, gizonak eta emazteak? Ez ba. Piltzar batzu ditun... Alde batetik nigar egiteko... Bertze bat irri egiteko eta bestea agur egiteko (*trufa egiteko edo eginez*) «Bonjour Monsieur, Bonjour Madame...».

**MARGARITA:** Ez dut konprenitzen zer gertatu den hemen. Zoazte denak hemendik...

**LULU:** Bai, hobe... Hau da ahalgea.

**PAULO:** (*Geldi araziz*). Geldi hortxe. Ez zirezte zirkarat etorri... gazte basa batez irri egiterat... Irri egin beraz... Bainan basa horrek du zuetaz irri egin gogo. (*Mahi gainetik xilintxa hartuz jo egiten du*).  
Euxebio,... Euxebio...

**MARGARITA:** (*besotik hartuz*) Ez hori otoi,... Paulo! (*Paulok pusatzen du oihu eginez eta xilintxa jo egiten du-finkiago*).

**PAULO:** Utz nezan... Aintzina jaun andereak, aintzina, gaur gixon eta emaxteki hoi en konturat ikusiko duzue zirka bat ederra... (*pertsu hauk erranen ditu bakotxaren artean geldituz*)  
Irakasle ospetsu  
Adimenik ez ta  
Liburuz inguratu (*xilintxa*)  
Ama  
Azalez ederra  
Ta barnez ustela (*xilintxa*)  
Erregin-gai Fifi:  
Algarrekin nahi? hi hi!  
Gutiziarik bai? hi hi!  
Senarrik nai? bai bai... (*xilintxa*)  
Eta orai ez du hortan fini:  
Roldan diruzaitzale

Roldan lege gizon  
Roldan diru harrapatzaile

**JULIO:** (*hurbilduz*) Aski Paulo, aski, hitzik ez gehiago.

**PAULO:** (*xilintxa bota ta gustian*). Ba huen denbora. Denborarekin denborarekin gizona azkar he! Kasu (*Julio urrats batez aintzinatzen da*).

**MARGARITA:** (*bortizki*). Geldirik! Etxe huntan ni naiz bakar bakarra gazte hori eztitu dezakeena.

**ROLDAN:** Utzak. Bere onetik ateratua duk. (*Juliok aitarekin gibelerat egiten du*).

**PAULO:** Behazan Marga. Denen artean ez duk egiazko gizonik, denak lastozko mamu batzu... Bainan ez gaitie ez hi eta ez ni beren gezurrezko mundu hortarat itzuliko... (*berriz oihuka*) Euxebio! Euxebio!

### Lehengoak eta Euxebio

**EUXEBIO:** (*bortan agertzen da*) Jauna?

**PAULO:** Zelazkik segidan bi zaldi..(*Euxebio joaiten da*). Eta zuek parti hemendik. Berriz jinen naizelarik, hemen hatxemaiten bazaituztet zanpatuko zaituztet... Garbi nahi dut gure etxea (*paltoa kenduz, bortari buruz badoa*).

**MARGARITA:** Jaun andereak, barkatu hemen gertatu etaz.

**LULU:** Berantegi da orai... eta, goresmenak... ori da ori untsa hezia den ikaslea!

**FIFI:** Ez ginuen zoro etxe huntarik jiterik.

**ROLDAN:** Egun batez lehertu behar zuen. Aitaren ondokoa... Holako egurra halako ezpala.

**JULIO:** Jarri, jarri irakasle... orai bertze zerbait jakinen duzue...

**MATILDA:** Zuen falta... hartaz irri egin nahi eta horra!

**ANJELI:** Barka zozute. Ez du-usaiarik eta soberaxko edan du.

**IRAKASLEA:** Ez dugu orai aitzakiran beharrik. Holako aberea etxean denean kaiolan sartzea hobe da. Goazen (*denak joan dira*).

**MARGARITA:** Segizkitzu Matilda eta zuk ere Anjeli. Utz nezazute harekin bakarrik. (*denak johan dira elgarrekin mintzatuz. Julio ximinei ondoan gelditu eta dei egiten du Margari*).

### Marga ta Julio

**JULIO:** Ixtant bat, lehenik zure eta ene arteko zerbait behar dugu erabili.

**MARGARITA:** Zertako? Zuk erran beharrak ez dute orai baliorik.

**JULIO:** Eta hari erran dezaiokekanak?

**MARGARITA:** Ez eta ere. Joko horrekin izitzea uste bazinuen tronpatu zira.

**JULIO:** Ez didazu errango gizon hori ez duzula maite?

**MARGARITA:** Nere gogo eta odol guziz...

**JULIO:** Uste duzu orai lehen bezala ixilduko naizela?

**MARGARITA:** Ez daukazu deusen erraiterik. Paulok jakin behar duen guziak nik erranen diot orai.

**JULIO:** Ez zaitut sinesten. Orduan ere ez zinela beldur erraiteko eta zer egin duzu geroztik?

**MARGARITA:** Orai arte behin ere sekulan ez dutana... Izan untsa...

**JULIO:** Gaur da zuretako azken epea.

**MARGARITA:** Badakit egunetik egunerat beldurrez egun hunen beha egongo nintzan. Bai eder da begiak hestea ta zoriona luzaraztea.

**JULIO:** Konpreni zazu untsa. Lagunntzen ez banauzu bide bakarra gelditze zait. Eta Paulori zuk uste baino kalte handiago egin dezaioke.

**MARGARITA:** Betiko partitzeak baino handiago?

**JULIO:** Aise handiago. Gaurko abere oihu horiek ikusi eta, irakasleak aise zorotegian sarazten ahal du.

**MARGARITA:** *(izitu ta gibelerat egiten du)* Zer errai nahi duzu?

**JULIO:** Orai gogoan duzuna bera.

**MARGARITA:** Ez!

**JULIO:** Hogoï-urtez bizi aita zoroarekin, xorier mintzaten eta Jainkoa ikusten duen mutikoa, harrigarri zaitzu erro-etxean sartzea?

**MARGARITA:** Ez, ez duzu holakorik eginen ni xutik egoiten ahal naizeno.

**JULIO:** Harritzekoa ahal da semeari aitarena gertatzea? Zuri amarena gertatu zaitzun bezala?

**MARGARITA:** Gizon txarra! *(eskua luzatzen du zarta bat eman nahiz. Juliok hartu ta atxikitzen du)*.

**JULIO:** Zuri da orai deliberatzea. Orai segidan, zirt edo zart.

*(Pulo bortan agertzen da, zaldiz ibiltzeko jantzia. Julio hola ikustean, zalhu abantzatzen da).*

### Marga, Julio eta Paulo

**PAULO:** Bainan hi oraino hemen? Eta esku zikin horiek neska horren gainean *(hartzten du ximineitik makoa eta hurbiltzen zaio)*. Zer da Marga, deliberatu behar dukana? Zer? Erran zak.

**MARGARITA:** *(bi gizonen artean jarriz)*. Ez, Paulo? ni gatik ba.

**PAULO:** *(Juliori)* Hitz egiteko erran diat.

**JULIO:** Ni ez nauzu hitz egin behar dudana, bera duk. Ez dea hala Marga?

**MARGARITA:** Bai nik errango diat, bainan hail hemendik zerbait gertatu aintzin.

**JULIO:** Bon, uzten zaituztet eta ez zanala deusik ahantz. Gau on *(Johan da)*.

### Marga ta Paulo

**PAULO:** Erradatak otoi, zer da jakin behar dutan kondu zahar hori, Marga?

**MARGARITA:** Entzun Paulo... Bizia emango nukek orai eman behar dutan nahi gabe eta mina ez emateko. Bainan ez diat nahi gu bien artean izan dadin gezur eta segeturik. Unibersidadean ginelarik, gazte horrekin... zera... kurutzatu nauk. *(Paulo harritua dago, flakaturia bezala. Makoa eskutik erortzen zaio)*.

**PAULO:** Zer... esan den...? Ez... ez dinat ongi entzun... Ezin ziteken..

**MARGARITA:** Izigarri duk maite... Nik ere ezin sinetsia diat... Lehen elgar maite ginian, bai bainan orai nardatzen nik.

**PAULO:** *(Harritua)* Ez, ez, ez, Marga... Erraidak bihar iguzkiak ez duela argituko, orai berean mundua lehertu dela, guziak sinetsiko ditinat... bainan... hori ez..!!!

**MARGARITA:** Gordetzea okerrago. Egun batez jakinen huen eta nik erraitea hobe.

**PAULO:** Ordian, egia dun? Burutik zangoetarat dardara bat pasatu gabe ez deat musurik emaiten ahal... Hi, besterik ez bezelakoa... hi bakar hori, hi ere bai?

**MARGARITA:** Bai, maleruski, ni ere bai, maite...

**PAULO:** Eta kapable haiz hori eni buruz buru aitortzeko?

**MARGARITA:** Hik baino gehiago sofritzen diat, bainan ez duk nere falta. Hortako ez diat barkamendurik eskatzen.

**PAULO:** Untsa dun *(so egin gabe mintzaten da)* Orduan ez dinat bi zaldiren beharrik. Batekin aski.

**MARGARITA:** Orai bi urte, ikasle nintzalarik, bakartasunak eta beharrak.

**PAULO:** *(erotua)* Aski! Galdetu ahal dinat zerbait?

**MARGARITA:** Ez duk arrapostua... azken agurra bai.

**PAULO:** Ni gatik atxikan hire agurra... Begi urdin edo berde, Adelaide, edo Marga, enetaki

ibuak, dik... Denak berdinak, gizonaren xehatzeko. Hara hor atea!

**MARGARITA:** Ez dik balio zakur bat bezala igortzea. Nere balisak prest dituk.

**PAULO:** Zeren beha egonki haiz ba?

**MARGARITA:** Agur egin nahi nikan, bainan herrarik gabe, eskua eman ez.

**PAULO:** Ez gal denborarik alferretan. Joan, parti! Bestea ez dun urrun bidean. Oraino harrapatuko dun.

**MARGARITA:** (*penatua*). Ori ez... Ez baduk hori konprenitzen... Bakea eman neri. Bainan ez nere kontra herrarik izan... Ez duk eskubiderik...

**PAULO:** Erna hadi eta etxe hau garbi!

**MARGARITA:** (*goxoki*). Lehenik entzun behar nauk garrasia eta oihurik gabe, memento huntan ni baino aise eskasagoa haiz... Urrikia ta lotsa emaiten daztak.

**PAULO:** Hara orai, nik lotsatu behar?

**MARGARITA:** Bai hi, gazte azkar, gazte garbi... Bere buruaren jabe den gizon hori erakutsi datak, bainan hori dena ixtant batez galdu duk... Zertako hire indar garbi hire indar garbi hori?...Neska gaixo baten erausteko. Zertako hire buruaren jabe? Nerea galtzeko. Eta hire garbitasuna nun duk? So eginzak orai hire buruari: Mamu irringarria, erdi basa, erdi ergel hoietarik...

**PAULO:** Hori hire lana zukan...

**MARGARITA:** Bai egia duk hertan, hire indarrak bezain handi ta eder zen arima moldatu nahi izan nikan, eta ez diat jakin izan... Zorigaitz ikaragarria. Eta horiek guziak hala, gu bien artean nehork zorrik badu, hi haiz zordun.

**PAULO:** (*bortizki*) Nik ez dinat nehorekin zorrik. Hiekin balinbadut, hail Administradorearen ganat, ta kito...

**MARGARITA:** Ez nian hitarik halako gauza bortizik igurikatzen... Hi bezalako gizon zintzo batentzat ez duk gisa? A ta neskatoari etxetik partitzean balisak so egiten zaizkieten bezala, so egin zak nahi baduk eneeri ere... inkasean zerbait gorderik johan dutanez. So egizak untsa hire zilarrak eta dirua...

**PAULO:** Ibul zatak... Ohoinen artean usatua nun.

**MARGARITA:** Bai? Orduan so eginzak hire odola hea osorik ote dukan... ala ote etxe huntako ontasunik ederrena... nik juhan diat... Haurra...

**PAULO:** (*brau itzuliz*). Haurra?... Ene semea?...

**MARGARITA:** Seme edo alaba, zer eskubidez deituko hiekek hirea? Hik semea bakarrik ezarri duk, nik aldiz bihotza. Mundu huntan daukaten guzia, sabelean diat, eta ez daitak nehork ere kenduko. Milesker beraz! (*partitzerat doa ta Paulo aintzinean jartzen zaio*)

**PAULO:** Geldirik hor! Estakuru pollita ni saretan arrapatzeko!

**MARGARITA:** Kendu aintzinetik!

**PAULO:** Ez, ez haiz sortzea arte joanen... Gero bai, bainan bakarrik... (*indarrean baztertzen du*). Eta-berriz lehengo ixtoria... Kondaira zaharra... Hi hire mundu ergelerat.. Nere ttipia, nerekin, han gain heietarat...

**MARGARITA:** (*erhotua*) Hori ez sekulan ez... Haurra izanen da ene biziko fruiturik ederrena. Oso osoki izan nahi diat haur hunen ama (*Belaunak makurtzen zaio eta trenpu xartzen da*)  
(*Paulok atxitzen du*).

**PAULO:** Marga... Marga... (*Margak zentzua galdua du ta Paulok besoetan dauka. Tximinia ondoko fotilerat joan du*). So egin zak neri. Ez nakian zer erraiten nuen. (*Oinetan belaunikatuz*) (*eta eskuetan musuka*). Begira zak eni, bainan hire begiz...Margaa iratzar hadi... Margaa (*Marga lehen bezala geldirik... Bat betan argi guziak hil eta bi kandelabro ta suaren dirdira baizik. Haize kolpe batek erridauak igitzen ditu. Paulori mendian gertatu bezala beldurra sartzen zaio*). Zer da hau? Esku hauk geldituak? Bixtarik gabeko begi hauk? Zer da ilunbetan sartu den hotz hau? (*dardaraka xuti, eta bere kontra hartuz goxoki*) Ez! Heriotzerik ez! Nere bizia luzatzekotan elgarekin... ez nezan bakarrik utzi... Ezagutu ta gero... ez... Berriz

ere... ez...

*(orduak xirnistak bat ageri ta ortzi karraska... Paulo, itsuturik argi hortarat so egiten du)*

Eskerrak, Jaun Jainkoa... eskerrak...

*(Marga polliki polliki memoratzen da)*

**MARGARITA:** Maite.. *(Paulo zalhu berriz bere oinetarat)*

**PAULO:** Hemen nauzu... Betiko zurekin Marga.

**MARGARITA:** Ez nezazula utz... iduritzen zaut hiltzerat noala...

**PAULO:** Ez izi... Heriotzea ez duk ausartatuko... bizia zutan baitago eta Jainkoa gurekin... Eta sekulan erran ez dautazun hirugarren hitz hura?

**MARGARITA:** *(bere burua Pauloren kontra emanaz).*

Maitasuna... Maitasuna... Maitasuna...

OIHALA